



Gai monografikoa

Euskaltzaindiaren hiztegi batuaren historiaz eta metodologiaz

Jose Luis Alvarez

Gauzak ondo bidean heldu den urtean Euskaltzaindiak argitara emango du bere hiztegiaren lehen edizio osoa. Malkartsua izan da orain arteko bidea. Askoren ahalegina hamarkada luzeetako behar izan da langintza horretan. Artikulugileak aspaldiko aitzindari nagusien ekarpenei begirada narea eginez hasita xeheki jorratu ditu Hiztegi Batuaren ibilbidearen ipi-apak. Zer, noiz, nola eta noren eskutik gertatu den fin eta aratz azaltzen du. Luze joko luke hemen lanaren mamia labor azaltzeak. Artikulu zinetan landua, euskal hiztegi gintzaren berri jakin nahi duen ororentzat biziki estimagarria.

Aurkibidea

- 0. Atarikoa
- I. Euskal hiztegi gintzaren lehen mugarri nagusiak (1562-1906)
 - 1. Nicolao Landucciren *Dictionarium Linguae Cantabrigiae* (1562)
 - 2. Silvain Povreauren Hiztegiaren eskuizkribua (1665)
 - 3. Manuel Larramendiren *Diccionario Trilingüe*-a (1745)
 - 4. R. M^a Azkueren *Diccionario Vasco-Español-Francés* (1905-1906)
- II. Euskaltzaindiaren hiztegi gintzaren lehen bi proiektuak (1919-1960)
 - 1. Euskal hitz jatorren gaineko eztabaida luzea (1901-1959)
 - 2. Euskaltzaindiaren gaztelania-euskara hiztegiaren proiektua (1930-1935)
 - 3. Euskaltzaindiaren agiria euskal hitzei buruz (1959)
 - 4. Azkueren hiztegi handiaren edizio kritikoaren proiektua (1956-1969)

- III. Arantzazuko Batasunerako Hiztegitik Hiztegi Batu osoaren prestaketara (1968-1990)
 - 1. Azkueren hiztegiaren azterketa kritikotik Euskal Hiztegi Orokorrerantz (1957-1984)
 - 2. Batasunerako lehen hiztegia (1968-1970)
 - 3. *Zortzi urte arteko ikastola hiztegia* (1975)
 - 4. Mitxelenaen *Orotariko Euskal Hiztegia* (1987-2004)
- IV. Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuaren metodologia eta edukia (1991-2012)
 - 1. Lehen hiztegi hiritartu elebidun handiak (X. Kintanaren *Euskal Hiztegi Modernoa* (1977, 1980²) eta L. M^a Mujikaren *Diccionario Vasco General y Técnico* (1977))
 - 2. Euskaltzaindiaren hiztegitintzari buruzko plangintza (1983-1996)
 - 3. Euskaltzaindiaren bigarren agiria euskal hitzei buruz (1991)
 - 4. Ibon Sarasolaren *Euskal Hiztegia* (1984-2007)
 - 5. Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batuaren* metodologia eta edukia (1991-2012)
 - 5.1. Hitz-zerrendaren edukia, tamaina eta burutzeko epeak
 - 5.2. Hiztegi Batuaren batzordearen osaera eta lan-prozedura
 - 5.3. Txostenak prestatzeko irizpideak, haien egitura eta eztabaida
 - 5.4. Hiztegi Batuaren lau idatzaldiak

Bibliografia

0. Atarikoa

Gauzak ondo bidean, heldu den urtean Euskaltzaindiak argitara emango du bere hiztegiaren lehen edizio osoa, hots, hitz-zerrenda batua ez ezik, hitz guztien kategoria gramatikala, definizioa, dituzketen adiera ezberdinak, erabilera zuzenari buruzko oharrak, esapideak eta ereduak adibideak ere jasoko dituena. Hamarkada luzeak iragan dira Euskaltzaindiak *Hiztegi Batuaren* egitasmoari ekin zionetik, Mitxelenaen gidaritzapean. Bide luze bezain malkarra izan da, zinetan eta benetan. Baina lan esker-garen emaitza oso oparo eta joria izango dela ezin uka.

Luzaroan luzesten ari zaigun *Hiztegi Batuaren* lehen edizio osoa eskura dezagunean, gutxik sumatuko du zenbat lan eta neke, zenbat eztabaida eta sesio behar izan diren horrelako egitasmoa azken bururaino eramanez ahal izateko. Are gutxiagok irudikatu ahal izango du zer-nolako diziplina metodologiko zorrotza eskatu duen zeregin horrek eta zenbat gorabehera ezagutu dituen urteetan zehar.

Maizegi ahazten badugu ere, bestalde, ezein obra handi ez da berez eta besterik gabe sortzen, ezta egilearen lanari bakarrari esker ere, beronen dohainak eta ahaleginak guztiz apartekoak izan arren. Obra orok bere historia eta zorra ditu; zenbat eta obra handiago, hainbat eta historia luzeago eta zor gizenago. *Hiztegi Batuak* ere –ezin zitekeen bestela izan– luzea du bere historia eta zorra ez du batere tipia.

Euskal Filologian hasiberriek eta, oro har, *Hiztegi Batuaren* erabiltzaile interesatuek honi guztiari buruz oinarritzko informazio eta ezagutza fidagarriak izan ditzaten, datozen orrialdeetan ahaleginduko gara hiztegiaren historia eta metodologia azalpen sintetiko bat egiten.

Horretarako, lehenengo atalean, *Hiztegi Batuaren* aspaldiko aitzindari nagusiak izan diren hiztegien berri –berri labur baina bazterrezi-na– emango dugu: Nicolao Landucciren hiztegi enblematikoarekin hasi eta Azkueren hiztegi mardul eredugarriarekin buka, bidean Silvain Pouvreuren eskuizkribuzko hiztegi preziatuari eta euskal hiztegitintzan mugari erabakigarri izan zen Larramendiren hiztegi hirukoitzari begirada nare bat eman ondoren.

Bigarren atalean, Azkueren hiztegi handiaren argitan Euskaltzaindiak izan zituen bi hiztegi ezberdinen proiektuen berri emango dugu. Eta horretarako gogora ekarriko ditugu, lehenik, Sebero Altubek, Azkueren iritziaren kontra, joan den mendeko bigarren hamarkadaz gero eginiko proposamen aitzindariak bezain ausartak, garbizalekeria gailentzen ari zen garaian. Bigarrenik, Euskaltzaindiak eztabaida horiei guztiei emaniko behin betiko soluziobide zentzuzkoa zein izan zen azalduko dugu.

Hirugarren atalean, Euskaltzaindiaren hiztegiaren oinarri nagusi eta ezinbesteko prestalan eredugarri izan den Koldo Mitxelenaren *Orotariko Euskal Hiztegiaren* lehen urratsa aztertuko dugu. Ondoren, gogora ekarriko ditugu Aita Villasantek eta Koldo Mitxelenak Euskaltzaindiaren hiztegi batuari begira plazaratu zituzten irizpide nagusiak, 1968ko 2.000 hitzeko lehen zerrenda baturako (*Batasunaren Kutxa* izenez ezaguna gero) guztiz erabakigarriak izan zirenak.

Lehen hiztegi batu honen jarraipen eta osagarriak izango ziren beste bi hiztegitxo ere aintzat hartuko ditugu. Aurrenik, 1970ean Gabriel Arestik eta Xabier Kintanak, “Mitxelenaren promesa pean” eta hirurogei idazle –horietariko batzuk sona handiko euskaltzainak– presuren arrimuan, Arantzazuko Batzarraren bulkadaz prestatu zuten *Batasunaren Kutxaren* bigarren edizio handitua eta osotua: 5.800 hitzez osatua eta euskal hitzen definizioak euskaraz –lehen aldiz gure historian– emanak.

Bigarrenik, Euskaltzaindiaren ardurapean 1974an argitara eman zen *Zortzi urte arteko eskola hiztegia*, ikastoletan egarri bezain ilusioz hartu zena, bere xumean. Azkenik, Mitxelenaren *Orotariko Euskal Hiztegiaren* metodologia aztertuko dugu, laburki bada ere.

Laugarren atalean, arauemaile izateko bokazioa duen *Hiztegi Batuaren* oinarri eta gidari izan den metodologia eta eduki espezifikoa azalduko ditugu. Horretarako, Euskaltzaindiak azken hamarkadetan hartu dituen erabakien berri emango dugu eta Ibon Sarasolaren *Euskal Hiztegi* eredugarri bezain bide-erakuslearen ezaugarri nagusiak azalduko ditugu, X. Kintana eta L. M^a Mujikaren lehen hiztegi hiritartuek egin zuten ekarpen handia aitortu ondoren. Hartara, *Hiztegi Batuaren* sarrera-hitzen hautaketa, hitzen behin betiko ortografia eta forma, daitezkeen adiera ezberdinen arteko bereizketa eta hitz edo adiera bakoitzaren ereduak erabilpena zein irizpideren arabera egin diren argitzen saiatuko gara, hain zuzen ere.

**I. Euskal
hiztegiintzaren
lehen mugarri
nagusiak
(1562-1906)**

Ezein obra ez da *ex novo* sortzen, ezerezetik jalgiko balitz bezala. Idazlan handi guztiek badute beti inspirazio-iturriren bat, maizenik ongi antzeman eta dokumenta daitekeena. Areago urte eta esku anitzen buru-lan mardula dugun euskal *Hiztegi Batuaren* kasuan. Zuzen eta bidezko da, beraz, Hiztegi Batuaren iturri nagusiak aipatzea, denak, labur beharrez, ezin aipatuko baditugu ere.

Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batuaren* iturri nagusiak aipatzerakoan berebiziko garrantzia dute *Orotariko Euskal Hiztegiak*, eta berau egiteko gehienik erabili diren lehenagoko zenbait hiztegi garrantzitsuk. Euskaltzaindia sortu baino lehenagoko batzuk aipatuko ditugu aurrenik.

1. Nicolao
Landucciren
*Dictionarium Linguae
Cantabricae* (1562)

Italiako Luca hiriko poliglota prestu baten ekimen eta ardurari esker 1562an burutu zen, eskuizkribuz, euskal lehen hiztegia, *Dictionarium Linguae Cantabricae* titulupean. Lau mende igaro (1958) arte, Manuel Agud eta Koldo Mitxelenaren eskutik, argitaratu ez bazen ere, ezin uka daiteke hiztegi honek izan zuen eragina geroztikako hainbat euskal hiztegi-gileren lanetan¹, bereziki, Manuel Larramendiren hiztegi hirukoitz aitzindariaren “*Suplementoan*”, Frantzisko Aizkibelen euskara-gaztelania lehen hiztegi mardulean eta, berauen bidez, Resurrección M^a Azkueren hiztegi handian, hiruretako ezeinek zorra aitortu ez zion arren.

Hiztegi honen ezaugarri nagusiak honako hauek ditugu:

- Landucciren gaztelania-euskara hiztegia “*Bocabulario Español, Francés, Italiano y Vizcayno*” deritzan eskuizkribuzko hiztegi hirukoitzaren (hots, gaztelania-italiera, gaztelania-frantsesa eta gaztelania-euskara hiztegiek osatutakoaren) zati bat da, hirugarrena eta beste hiztegien neurri bertsukoa. Denera ehun *folio* hartzen ditu, 227-328 folioak, hain zuzen, folio bakoitza bi aldeetan izkiriaturik dagoela. 315. folioaren ifrentzutik azken folioa –328. folioaren aurkia– arte euskarazko ordainik ez da ageri, sei kasutan izan ezik. *Dictionarium Linguae Cantabricae* latinezko tituluak badu euskal ordaina hiztegian bertan: *Bocabulariva Ezqueraz jakiteco. Ezqueraz Verba eguiteco* (226. folioa).
- Gaztelania-euskara hiztegia dugu, baina, esan bezala, guztiz osatu eta amaitu gabea. Gaztelaniari dagokion zerrenda osaturik dakarren arren, euskal ordainak falta dira *sastra muger* hitzetik bukaera arte (v letraz hasitako 6 hitz kenduta), baita aurreko hitz dezenterena ere (301 hitz, gure kontaketa arabera²). Orotara gaztelaniazko 6.000 sarrera-hitz inguru ditu eta hauetako 5.300 inguruk euskal ordaina dute, ordain bikoitza ez gutxitan.
- Hiru egileren eskuak antzeman dakizkieke euskal ordainei, Agud-Mitxelenak A, B eta C izendatu dituztenak³. Euskal egile nagusia A dugu, egun galdurik dugun mendebaleko euskalki baten lekuko zuzen eta nagusi dena, bizkaiera zaharraren lekuko gertu samarrekoa, hain zuzen ere, Araba aldean ziurrenik mintzatuko zena.

Mitxelenak dioenez⁴, A itzultzaileak ez du euskara ongi menderatzen, eta, horren ondorioz, maiz euskal ordainak –jatorria gorabehera– baino erromantzetik zuzenki edo berriki mailegaturiko hitzak dirudite egileak proposatutakoek; haatik, arkaismo eta *hápx legómena* ugari dakartza, hizkuntzaren historiako berebiziko garrantzia dutenak. B itzultzaileak, berriz, hobeki menderatzen du hizkuntza eta euskara garbiagoa eta erdialdekoagoa erakusten du. Gipuzkeratik gertuko euskalki bat darabil. A-k utzitako hutsune ugari bete ez ezik, zuzenketa dezente ere egiten dio A-ren lanari. Haatik, A-k eta C-k baino arkaismo eta *hápx legómena* gutxiago erakusten ditu. C-ren eskuak hiztegiaren lehen partean bakarrik egiten ditu eranskinak eta zuzenketa⁵. Honek A-ren euskalki bertsua darabil, eta hark bezala ez du euskara ondo menderatzen. A-ren hutsune batzuk bete zituen. Halaber, arkaismo eta *hápx legómena* interesgarriak dakartza, bere urrian.

- H letraren erabilerak aipamen bat merezi du. Erdal jatorriko euskal ordainetan, maiz kalko hutsak diruditenak, egileek ez dute inolako erreparorik izan letra horretaz baliatzeko, bereziki hitz-hasieran: *halcoya*, *halconeroa*, *harpea*, *hazañea*, *haziendea*, *hechizeroa*, *hechizerea* (fem.), *hechizadu*, *hechura*, *hazañosoa*, *hendidu*, *hendedura*, *heridea*, *herradea*, *herradu*, *herradura*, *herradorea*, *herremientea*, *hidalgo*, *hidalguia*, *hinchaduyc*, *hurquea* (“horca”, +*sardea*), *hormea* (“horma”), *horroa*, *huefano*, *humeroa*⁶. Bestalde, euskal hitz jator batzuek *H* letra daramate hasieran batzuetan eta bestetan ez, zergatik ez dakigula: (*h*)*eguín*, (*h*)*eguina*, (*h*)*errexal* (“arbola”) (*h*)*ordu*... Gaztelaniazko hitz batzuk *H*rekin hasi arren, proposatutako haien kalkoek ez daramate *H*rik: *unditu*, *undiquetea* (“hundimiento”)...
- Guztiarekin ere, hiztegi honen mugak begien bistakoak dira. Lehenengo, hitzen kopurua ez da oso handia eta gaztelaniazko termino asko (ehuneko hamar, gutxi gora behera) euskal ordainik gabe datoz. Bigarren, A eta C egile edo informatzaileen hizkuntzaren eza-gutza ez da ona eta honek, zalantzarik gabe, baldintzatzen du hiztegiaren kalitatea. B-ren euskara maila ona izan arren, A-ren euskal ordainei egiten dizkien zuzenketa ez dira beti objektiboak, menderatzen duen euskalkiaren arabera egiten baititu, A-ren bizkaiera zahartxo aintzakotzat hartu gabe. Hirugarren eta azken, euskara ikas-teko hiztegia da, gaztelania erreferentzia-hizkuntza (hots, *metahizkuntza*) izaki.

Nolanahi ere den, hiztegi baliotsua dugu, zalantzarik gabe, lehen euskal hiztegia delako eta, askorentzat oraino ezezaguna bada ere, geroko hiztegi-gile handienengan nolabaiteko eragina izan zuelako, nahiz mai-zenik zeharka eta oharkabean gertatu. Izan ere, Larramendik espresuki gaitzetsi arren, erruz baliatu zen hartaz bere hiztegi handia egiterakoan, bereziki bigarren liburukiari erantsi zion *Suplementoa* idaztean, baina ez zuen inoiz iturri hori aitortu. Hartara, Aizkibelek uste izan zuen

Suplementoko hainbat eta hainbat hitz –Gipuzkoan ezezagunak eta Iparraldeko hitzak ere ez ziruditenak, hain zuzen ere– Cardaveraz idazleak Larramendiri utzitako kaier zaharretik (“Quaderno viejo” zeritzanetik) zetozela, eta, beraz, *Card[averaz]* zeinuaz adierazi zituen bere euskara-gaztelania hiztegi mardulean.

Azkuek ere ez zuen jakinaren gainean Landucciren hiztegia baliatu, baina Larramendiren Suplementoa berariaz erabili zuen eta Aizkibelen bidez ere hartu zuen Landucciren hiztegiko hainbat hitz. Mitxele-nak dioenez⁷, Añibarro eta Iztueta idazleen eskutik ere Landucciren *Bocabulariotik* zenbait hitz ere pasa bide ziren Azkueren hiztegiara. *Orotariko Euskal Hiztegiak* eta Sarasolaren *Euskal Hiztegiak* gogo onez eta iturria espresuki aitortuz jaso dituzte Luca-ko italiar prestuaren hiztegiaren euskal hitz ugari. *Hiztegi Batuak* ere badu, hartara, bere zorra euskal hiztegi lehenarekin; ezin zitekeen bestela izan.

2. *Silvain Pouvreauren
Hiztegiaren
eskuizkribua (1665)*

Landucciren hiztegi xumetik Larramendiren hiztegi handira ia berrehun urte igaroko dira. Bitarte horretan hiztegi izena merezi dukeen bakarra **Silvain Pouvreauren** eskuizkribuzko lexiko mardula dugu (8.100 bat sarrera) hamazazpigarren mendearen bigarren erdialde hasieran egina.

Hiztegi honen eta gisa honetakoen garrantziaz jabetzeko, ez da alferrikako izango gogora ekartzea Mitxelena jaunak “Euskal hiztegi-gileak XVII-XVIII. garren mendeetan” izenburuko artikulua mamitsuan zioena: “Iturburuetara jo behar da hiztegi-lanetan, beste edozeinetan bezala, bide erdiko berriketei jaramonik egin gabe. Alfer-lana baita, eta okerre-ra gaitzakeena, ahoz aho dabilzan esanak biltzea, nondik sortuak diren eta nork zabalduak galdetu gabe. Iturri bilatze hau, etxe-garbiketa bezala, ez da behar bada eguneroko eginbeharra, bai, ordea, noizean behin –eta zenbat eta maizago hobe– egitekoa, hautsak eta pipiak jango ez bagaitu”⁸. Eta iturburu nagusia XVII. mendean Silvain Pouvreau dugu, Mitxelenak berak dioenez.

Landucci bezala, Pouvreau erdalduna zen, baina, Oihenarten modura eta Lucakoa ez bezala euskaraz bikain ikasi zuen eta metodologia egokiaz baliatu zen lexikoa egiterakoan. Izan ere, iturri egokietara jo zuen, hainbat eta hainbat euskal liburu ikertuz eta erabiliz. Oihenart garaikidearen *Atsotizac eta Refraua* arretaz aztertu zituen eta haien hiztegia atera zuen. Gainera, ehunka egin zizkion galderak Oihenarti eta honek xehetasunez erantzun zizkion beti.

Dirudienez, Oihenart izan zuen “gidari bizi bakarra”⁹, gainerako iturrien egileak zenduak baitziren. Axular, Leizarraga, Etxeberry Ziburukoa, Haranburu frantziskotarra (*Devocino eskuarra*-ren egilea, hain zuzen) eta beste zenbait autore zaharren obrak –ez denak, ordea– aztertu zituen eta haietarik hitz ugari atera. *Refranes y Sentencias* deritzan Bizkaia aldeko erretra bildumako hainbat hitz ere jaso zuen, Oihenarten bitartez izan bazen ere (Pouvreauek ez baitzuen inoiz bilduma hura ezagutu).

Pouvreuren hiztegiaren beste ezaugarri aipagarria da hitzak soilak ez ezik, esapideak eta esaerak ere biltzen dituela.

Badu, haatik, lexiko baliotsu honek akats bat: dokumentaturik ez diruditen, hots, ordu arte inon erabili ez diratekeen hainbat hitz erakarri ageri dira, berauen sorburu-hitzez lekukotasun ezagunik badute ere.

Buruenik, hiztegi honen balioaz eta eraginaz jabetzeko aski dira Mitxelenak izkiriaturik utzi diguna aipatu artikuluan: “Lotsarik gabe esan daiteke, erdaldun batena izanik, geroagoko edozein euskaldunenak baino huts gutxiago duela. Gutxik baizik ez daki zenbat baliatu diren lan horrezaz Duvoisin, Harriet eta orainengo Azkue eta Lhande bere lankideekin”¹⁰. *Orotariko Euskal Hiztegiak* oso kontuan eta izendatuki hartu du Pouvreuren lexikoa eta *Hiztegi Batuak*, iturriak aipatu ez arren, guztiz aintzat hartu du hitz askoren forma eta esanahia erabaki baino lehen.

3. Manuel Larramendiren *Diccionario Trilingüe-a* (1745)

Huts egiteko beldurrik gabe, esan daiteke Larramendiren *Diccionario Trilingüe del castellano, bascuence y latín* deritzana lehen benetako hiztegi handia dugula. Haren argitaratze-urtea “egiazko *annus mirabilis*” gisa ezaugarritu du Mitxelenak¹¹. Hitzok beren soilean demaigute obra honen itzalaren tamaina. Izan ere, Larramendirekin aro berri bat hasten da.

Hiztegi hirukoitzaren ezaugarri nagusiak hauetara bil daitezke:

- Izenburuak salatzen duenez, gaztelania-euskara-latina hiztegia dugu. Ordu arte ez zen horrelakorik ezagutzen gure artean. Lehenik, argitarata emandako euskal lehen hiztegia dugu. Bigarrenik, lehenagoko eskuizkribuzko hiztegi guztiak gainditzen ditu, nabarmen gainditu ere, neurritz eta hedaduraz. Egia esan, Pierre d’Urte kalonje ohiak 1715ean, Londresen, *Dictionarium Latino-Cantabricum* hiztegi handi bat idazteari ekin zion, baina lehen abiada baizik ez zuen egin, C letra amaitu ezinik geratu baitzen (*commotus*, -a hitzaren euskal ordainekin amaitzen da). Urteren hiztegia berriki arte inor gutxik ezagutzen zuen eta eskuizkribua argitaratu gabe zegoen¹². Baina Urteren hiztegia, amaitu gabea eta argitaragabea izateaz gainera, Donibane Lohitzuneko hizkeraren lekukotasuna ematera mugatzen da funtsean, autoreak buruz jardun baitzuen, libururik erabili gabe, Larramendik ez bezala¹³. Era berean, eta Bidasoaz haraindian betiere, Larramendiren garaikide izan zen M. M. Harriet-en euskara-frantsesa / frantsesa euskara hiztegi txiki interesgarria eman zen argitara 1741ean, Baionan, *Gramatica escuaraz eta francesez* izeneko ikasliburuan. Meriturik kendu gabe, ezin aldera daiteke Larramendiren hiztegi hirukoitzarekin.
- Izan ere, Larramendiren hiztegia luzea da oso, luzea bezain zabala eta lodia. Bi liburuki trinkok osatzen dute. Lehenengoak, egilearen hitzurre mamitsuaren ondoren, A-tik H-rainoko hitzak biltzen ditu, 436 orrialde handitan; bigarrenak I-tik Z-rainokoak 392 orrialdetan, ahantzi gabe azken orduan erantsi zion “*Suplemento*”a, laburra

(8 orrialde besterik ez du) baina garrantzi handikoa. Gaztelaniazko hitzak Real Academia de la Lengua española-k urte batzuk lehenago argitaratua zuen lehen hiztegitik hartu zituen, dirudienez guzti-guztiak hartu ere (43.000 hitz inguru), Larramendiren asmoa euskara gaztelania adina aberats zela erakustea baitzen, eta gaztelaniari zor gutxi ziola. Ordu arte ez bezala, beraz, hiztegi sistematiko bat osatu nahi izan zuen, eta, hein batean, lortu zuela esan daiteke, nahiz ordain egokirik eskura ez¹⁴ zeukanean asmatu egiten zuen, beldurrik gabe eta ez gutxitan. Larramendik ondutako lanaren tamaina izugarriaz jabetzeko nahikoa dateke 87.000 testu-hitz inguru bildu zituela esatea¹⁵.

- Euskal ordainak isurtzean hainbat eta hainbat iturritz baliatu zen andoaindarrak. Axularren *Gero*-tik hitz franko atera zuen, bai eta beste zenbait autoretatik ere. Ez zuen euskalkirik baztertu. Honetan ere aitzindari dugu Larramendi, euskal prosan Axular eta, neurri apalago batean, Leizarraga izan ziren bezala.
- *Hiztegi hirukoitzaren* egilea izan da, Mitxelenak ohartarazi duenez, “lehenbiziko aldiz eta erabat hizkuntza larrekua noranahiko bihurtu nahi izan duena”¹⁶. Eta horri inork gutxi baleritza, Manuel Larramendiri zor diogu “alde honetako tradizio idatziaren sortzaile eta bultzatzaile” izana, Patxi Altunak eta Esther Zulaikak gogorarazi digutenez¹⁷.
- Larramendiren hiztegiaren makurrik handiena, gorago aurreratu dugunez, hitz ugari asmatu izana. Akats honen arrazoi nagusia hiztegia erdaldunentzat bereziki egina izatean –erdaldunak txunditu nahi izatean bereziki– datza. Egia esan, hitz asmatuetara jo zuen *voces facultativas* direlakoak (*metopa, oxímaco, sincategoremático* modukoak) itzultzean, euskarak ordu arte landuak zituen eremuak urriak zirenez gero. Haatik, erlijio eta nekazaritza gisako arloetan ez zuen hutsik egin, lexiko aberats eta segurua bildu baitzuen, herri- hizkera ezin hobeki menderatzen eta errespetatzen zuenez gero.
- Maiz zail bada ere jakiten noiz hitz asmatu baten aurrean gauden eta noiz autoreak irakurria edo entzuna den, ohartarazi behar da esan ohi den baino gutxiago asmatu zuela Larramendik, eta euskal hitz asko lehen aldiz jaso zituela, ordu arte ezein izkribuk haien lekukotasunik emana ez bazuen ere.
- Larramendiren hiztegiaren eragina handia da oso. 1900 arte haren eragina guztiz nabarmena da, bai Hegoaldeko autoreengan (Ubillos, Agirre Asteasukoa, Añibarro, Cardaberaz, Iturriaga, Mendiburu, Iturzaeta... eta, ororen gaineratik, Iztueta), bai Iparraldeko idazleengan (Inchauspe, Egiategi, Haraneder, *Euskal Erria* aldizkaria eta are, dirudienez, garaikide izan zuen Etxeberri Sarakoa bera ere) ere, hauetan neurri apalagoan izan arren. Funtsezko ekarria ez da hiztegi-alderdira mugatzen, euskarari begiratzeko eta hartaz baliatzeko era eta modura zabaldu zuen bide berria andoaindarrak. Hizkuntzarekiko kontzientzia eta estimua iratzarri zituen, ordu arte inork ez bezala.

Bestalde, haren neologismoen eraginak, inork besterik uste izan duen arren, ez zion inolako kalterik egin herri-hizkera eta -literaturari, hitz berrien erabilpena, funtsean, goi-mailako eremu eta arloetara mugatu baitzen, ordu arte euskaraz landuak ez ziren arlo eta generoetara, hain zuzen ere¹⁸.

Dozenaka dira egun edozein euskaldunek hitzetik hortzera darabiltzan hitz berri larramenditarrak, betidaniko hitzak bailiran erabili ere, nahiz batzuetan esanahia zertxobait aldatu den geroztik¹⁹:

adierazgarri (adiragarri), agurmaria, aitala (aitalen), alderdi, anto- lamendu, antzeztu (antzeztu), arautegi, artzapezpiku (arzepizpiku), aur- keztu, bakarriketa (bakarriketea), baimendu (aditza), bakoiztasun, balakari, berezitu, betiraun(du), betiraute, biltoki, biltzarkide, biztanle, erabaki (izen gisa), eskutitz, eserleku, garrantzi (garransi), guda, gudari, guztiahaldun (guzialdun), hilezkor (illezcor), hizkera (itzera), hizki (izkira) iheskor (iges- kor), ikastola (ikasola), ikuskera, irakurgai, irozgarri, iruditegi (“esce- nario”), itsaslapur, itzulkerak, jakintza, jarleku (“cathedra”), jauntasun, joka (adlag.), jokaera (=“jokaldi”), jokaldi (jokaaldi), kondaira, lauburu, lokabe, mintzaera (mintzoera), moldaera, moldiztegi, omen (iz.), ontzidi, oroigarri (oroikarri), pasealeku, sendagile (sendakiñ), tintontzi (tintonci), uharte (ugarte), urkila (urkula), uroilo, zaindari (zaitari), zaindu (zaitu)...

Gure-gureak ditugu hitz horiek guztiak eta, ezin zitekeen bestela izan, *Hiztegi Batuak* onetsi eta jaso egin ditu.

Larramendiren hitz berriei arretaz erreparatuz gero, ohartu behar dugu, bestalde, Larramendiren eragina ez zela bakarrik fortuna oneko neolo- gismo dezente asmatzera mugatu, baizik eta hain beharrezko ditugun euskal hitz elkartu eta eratorrien sorbide eraberri emankorra ere eskai- ni zigula. Esaterako, *-garri, -kari -kor, -tasun, des*²⁰ eta beste atzizki zein aurizki emankorrez inor ez bezala baliatu zen euskal hiztegia abe- rasteko eta zehaztasunean irabazteko.

Gainera, beharrezko eta ezinbesteko zeritzonean, ez zuen konplexurik izan gaztelaniatik hitzak zuzenean hartzeko: *azaña, billete, baione- ta, baltsa, boia, eritu* (“herido”...), *estandarte, joia, kapitan, urakan...* Sabino Aranek eta Azkuek, nork bere argudioekin, ez zuten, damurik, Larramendiren ondarea aintzat hartu²¹.

4. Azkueren
*Diccionario Vasco-
-Español-Francés*
(1905-1906)

Larramendiren hiztegia argitara zenetik Azkuek bere hiztegi paregabea argitara eman arte mende eta erdi pasatxo igaro ziren. Denbora-tarte horretan eskuizkribuzko bi hiztegi aipagarri egin ziren: Duvoisinin eskutik bata, XIX. mendearen erdialdean, eta, bestea, Harriet Gaztearena, mende bereko bukaera aldean. Biez baliatu zen Azkue bere hiztegi erraldoia egitean, eta biek eragin nabaria izan dute mugaz harain- diko hainbat idazle eta hiztegi-gilerengan (Daranatz, Lhande, Lafitte, ...).

Larramendiren hiztegiaren argitalpen-urtea (1905-1906) *annus mirabilis* izan bazen, Azkueren *Diccionario Vasco-Español-Francés* izenekoarena *annus gloriosus* izan da euskal letretan. Bere belaunaldiko idazleengan eta

hurrengokoengan Larramendiren adinako eraginik izan bazuen ere, eragin erabakigarria izan zuen geroko hiztegitileengan (Lhande, P. Mugika, Mitxelena, Sarasola, Kintana, L. M. Mujika...) eta Olabide, Zaitegi eta idazle talde jakin baten idazlanetan ere, *Baskisch und Romanisch* lan baliotsua egiteko H. Schuchardt filologo handiak jaso zuen bultzada aiantzi gabe²². I. Sarasolak zuzen esan duenez, Azkueren obra “mugarri gertatzen da euskal hiztegitintzan ez ezik, euskal estudioen historian ere”²³.

Huts egiteko beldurrik gabe, esan daiteke Azkuerena, asmoz eta intentzioz bederen, euskal lehen hiztegi deskriptiboa dugula. Izan ere, bera izan zen euskalkiei eta autore zaharrei jakinaren gainean eta izendatuki ohorezko lekua egin zien lehen hiztegitilea. Mitxelenaren *Orotariko Euskal Hiztegi* erraldoiak Azkuek zabaldutako arrastoari jarraitu zion, lekeitiarraren lana kritikoki eta ikaragarri aberastuz bai, baina haren iturrian etengabe edanez betiere.

Azkueren hiztegi handiaren ezaugarri nagusiak honakook ditugu:

- Euskara-gaztelania-frantsesa hiztegia dugu, bi tomo marduletan argitaratu emana, Bilbon, 1905ean lehena (A-LI) eta 1906an bigarrena (M-Z). 1042 orrialde marduleko obra da, hitzaurre elebidun (gaztelaniaz eta frantsesez) aberats batez hornitua.
- Ordu arteko hiztegiekin aldaratzen badugu, alde eta aldi ia orotako euskal hitzen bilduma asmoz sistematikoa da, nahiz hitzen “euskaltasuna” definitzeko erabili zituen irizpideak murriztuz samarrak izan. Ahozko eta izkribuzko tradizioetik jasotako ondare lexikalaren berri ematen digu, hitzen entomologorik zorrotzena bailitzan, hitz bakoitzaren jatorri dialektala(k) –zalantzak barne– eta adiera ezberdinak emanez. Hala, sarritan hitzaren adiera bat edo beste maiz ahoz bildutako esaeren bidez argitzen zaigu, edo autore klasikoetarik izendatuki jasotako esaldi aiposen bidez finkatzen.
- Guztiarekin ere, eta Azkueren obra harrigarriaren balioa ezertan murratu nahi gabe, hiztegiak muga jakinak ditu, jakin eta aintzat hartu beharrekoak, batez ere *Orotariko Euskal Hiztegiaren* eta *Hiztegi Batuaren* nondik norakoak hobeki ulertu ahal izateko. Muga garrantzitsuena, akatsa ere kontsidera daitekeena, erdaratikako euskal hitz dezente baztertu edo estigmatizatu izana da. Euskal hitz *jatorren* inbentarioa egin nahian, jada Larramendiren ustezko edo benetako hitz asmatu oro baztertzen saiatua zen, nahiz gero, oharkabean eta zeharka, haren hainbat hitz bere hiztegian sartu²⁴. Orobat, Sabino Aranak eta beronen dizipuluek asmatutako hitz gehienak baztertzen ere ahalegindua zen, oraingo honetan egitekoa errazago izana zuela.
- Baina Azkueren lana ez zen horretara mugatu, erdal jatorriko usaina zukeen oro bazter uzten egin zituen eginahalak. Haatik, latinetiko *aingeru, amore, amodio, apostu, arraza, bake, bedinkatu, bertsolari, bokale, borondate, dantza, deabru, denbora, denda, doe, dohain, enbido, endelgatu, erramu, errege, erregutu, eskola, eliza, finkatu,*

ifernu, jende, kanpo, kanta, kantoin, kantatu, kapelu, kario, kate, katu, komekatu, komentu, kontra, lege, liburu, lore, mundu, meza, modu, olgeta, partzuer, partzuergo, paradisu, saindu, umil, zeru... eta horien gisako beste asko jaso zituen ezinbestean, baina galdera-ikur bat edo biz, edota ohar batez, haien erdal jatorria salatuz.

Zorionez, eta konturatu gabe (galde-ikurrik gabe, beraz), latinetiko edo beste erdaratiko hitz dezente ere jaso zituen: *abendu, abeniko, aingira, alokairu, berna, boneta, damu, gorpu, gorputz, jokatu, joko, molde, moldatu, parkatu* (“*barkatu*”), *soro, zapata, zentzatu, zentzu...* Arabieratiko zenbait hitz ere jaso zuen, beren jatorria maizenik seinatuz: *alkandora, alkate, almadia, almaiz...* Haren ustez beste jatorririk zukeen zenbait hitz ere bildu zuen, ustezko jatorria adieraziz: *abade...* Halaz ere, erdal jatorriko bezain euskal tradizioko hitz asko ez zituen jaso, hala nola *apostolu, birjina, bertute, espiritu, fede, fruitu, familia, (g)loria, grazia, imajina, imitazio, kafe, karitate, kolore, komunio, obeditu, partitu, pentsatu, pentsamendu, sakramentu, seinale, testamendu...*

Azkueren lexikografia-lana ez zen, haatik, hiztegi handi horretan geratu. Izan ere, lan txalogarri hura amaitu bezain pronto, beste egitasmo erraldoi bati ekin zion: gaztelania-euskara hiztegi handi bat egiteari, hain zuzen ere. 1916rako Azkuek *Diccionario Español-Vasco* izenekoaren lehen faszikulua emana zuen argitara. Koaderno erako lau faszikulu baino ez zituen argitaratu, eta *avezar* da azken sarrera.

Dirudienez, hiztegi horren helburua *Diccionario vasco-español-francés*-en bihurkera egitea zen, bai hitzei, bai esapideei ere dagokienez. Baina, helburu zabalagoa ere bazuen, I. Sarasolak ohartarazi duenez: Espainiar Akademiaren Hiztegiko sarrera guztien-edo euskal ordainak ematea, hain zuzen ere, eta horretarako ez zuen aski bere hiztegi handiaren bihurkerarekin. Hutsuneak betetzeko, Larramendiren antzera, Azkuek “glosetara jotzen du alde batetik, eta neologismoetara bestetik”²⁵.

Koaderno gehiago argitara eman ez bazuen ere, urte luzez jarraitu zuen hiztegi horretarako gaiak biltzen eta sarrerak erredaktatzen²⁶. Bestalde, 1918an sakelako hiztegi oso bat argitaratu zuen: *Diccionario de bolsillo: vasco-español, español-vasco*²⁷. Guztiarekin ere, eta harrigarri izan arren, Azkueren bi hiztegiok, I. Sarasolak dioenez, “ia inongo eraginik izan gabe igaro dira euskal hiztegi gintzaren historian”²⁸.

II. Euskaltzaindiaren hiztegi gintzaren lehen bi proiektuak (1919-1968)

Orain arte azaldu dugunak erakusten digu zein egoeratan zegoen euskal hiztegi gintza Euskaltzaindia sortu zenean. Egia esan, eta baldintza soziokulturalak ikusita, ez zen gutxi ordu arte egindakoa, baina egin-kizun zegoena inoiz baino argiago zekusaten orduko euskaltzaleek: euskara idatziaren batasun-premia ezin geroratzuzkoa zen eta horretarako baturanzko euskal hiztegi handi bat hil edo biziko erronka zen. Gerra aurretik Euskaltzaindiak gaztelania-euskara hiztegi handi bat

prestatzeari ekin zion. Zirriborro bat ere esku artean izan zuen, Altube eta Azkueren txosten batzuek adierazten dutenez²⁹. Baina gerrak eta gerraondoak abian zegoen proiektu hura geldiarazi egin zuten.

Proiektu hura, haatik, oinarritzko irizpide batzuk argitu eta bateratu gabe hasi zen egiten. 1959 arte itxaron beharko da Euskaltzaindia benetako oinarriak jartzen hasteko eta euskal hiztegi baturanzko bati abia da berri bat emateko. Euskaltzain oso izendatu bezain laster, 1953an, Akademiak Mitxeleneri egotzi zion Azkueren hiztegi handiaren edizio kritiko eta osotu bat prestatzeko ardura. *Orotariko Euskal Hiztegia* lan luze eta eskerga horren emaitza estima ezina dugu. Ikus ditzagun bide luze malkar horren mugarri nagusiak.

Ezagun denez, euskara idatziaren batasuna bultzatzeko asmoz sortu zen Euskaltzaindia, eta haren hasieratik beretik euskal hiztegi oso bat biltzeko premia ikusi zuen³⁰. Euskaltzaindia sortu zenean (1918) Azkue zen hiztegi gintzan adituena eta euskal gramatika ere errotik ezagutzen zuen³¹. Ez zen kasualitatea izan, beraz, Azkue Euskal Akademiaren euskaltzainburu –bizi bitartekoa gainera– hautatu izana.

Hiztegi gintzari dagokionez, Euskaltzaindia sortu arteko balantzea gazi-goza da. Bateko, eta euskara idatziari bakarrari gagozkiola, ez zegoen batasunik ez irizpide arauemaile argirik. Ordu arteko hiztegi guztien egi-leak ez ziren benetako lexikografoak. Azkue ere ez, bere jakituria handia izan arren. Besteko, hiztegi guztien –eta hurrengo hamarkadetakoen– metahizkuntza gaztelania nahiz frantsesa zen. Hots, gaztelaniaren zein frantsesaren egitura eta erabide lexikalaren arabera eginak eta osatuak ziren hiztegiak. Euskaltzain eta euskaltzaleen artean zegoen euskal hitzei buruzko sakoneko desadostasuna dugu honen guztionen adibiderik garbiena eta erabakigarriena. Zein ote dira euskal hitz jatorrak? Zerk definitzen eta ezaugarritzen du hitz bat euskal hitza dela edo ez dela? Jatorriak? Jatorri hutsak? Erabilerak? Erabilera soilak? Antzinatasunak? Antzinatasunak bakarrik? Hedadurak edo zabalgoak? Hedadura hutsak?

Galderok eta galderon arteko konbinazio ezberdinek osaturikoek ez zeukaten aho bateko erantzunik orduko euskaltzain eta euskaltzaleen artean. Areago, erantzun arrunt kontrajarriak entzuten eta irakurtzen ziren orduan. Nola egin batasun-bide emankorrik galdera horiei erantzunbide komunik aurkitu gabe? Nola egin eta osatu euskal hiztegi baturanzkorik euskal hitzak zein diren eta zein izan daitezkeen lehenago argitu gabe?

1. *Euskal hitz jatorren gainera eztabaida: Altube vs Azkue*

Izan ere, eta labur beharrez, Euskaltzaindia sortu zenean hiru joera ziren nagusi Akademiaren baitan eta orduko euskaltzaleen artean. Manuel Arraindiaga (Sabino Aranaren dizipulu sutua), Resurrección M^a Azkue eta Sebero Altube ditugu, hurrenez hurren, hiru joeren ordezkari nagusiak. Alde batetik, erdal jatorriko hitz guztiak, berauen tradizio eta hedadura gorabehera, baztertzearen aldekoak daude, hitz horiek utzitako

“hutsuneak” euskal hitz jatorren bidez –txoko bateko hitz ia ezezagunak eta hedadurarik gabekoak izanik ere– edo, horiek ezean, neologismoen bitartez bete behar direla sinetsita daudelako. Arana³², Azkue, Arraindiaga, Orixe, Zaitegi, Olabide eta abar ditugu joera honetakoak, nahiz neologismoak eratzerakoan bi eskola kontrajarri sortu ziren Aranaren eta Azkueren esku banatatik. Aranaren eskutik, purismoak marka guztiak apurtu zituen³³, tradizioarekin haustura larria erakarriz.

Azkue ere garbizale handia izan arren, euskararen barne-legeak hobeki ezagutzen zituen eta, Aranaren asmakerien kontra, neologismo “itxurosoagoak”, asmoz bederen, erutzen ahalegindu zen; baina arrakasta handirik gabe, egia esan, Arana ez bezala. Bestaldetik, neologismo egokien beharra ukatu gabe, tradizio luze eta zabaleko euskal hitz guztiak, erdaratiko jatorria gorabehera, onartzearen aldekoak zeuden. Sebero Altube dugu, mugaz honaindian bederen, joera horren defendatzaile nagusi ia bakarra.

Iritzi eta irizpide kontrajarri horien ideia zehatz samarra egiteko aski dateke Altuberen eta Azkueren artean 1920an Euskaltzaindiaren Batzarrean, txosten banaz baliaturik, izan zuten eztabaida gogora ekartzea³⁴.

Honako galdera honekin eman zion hasiera Altubek *Erderatiko-itzak, itz-barriak eta antxiña-itzak* izeneko txostenari: “Itz-talde orreetatik, zeintzuk ontzat artu bear dira eta zeintzuk baztartu?” [44 orr.]. Galdera honi erantzuteko, muturreko bi joerari gaitz irizten die aurrenik:

- 1 Erdaratiko hitz oro “sokondo batera” bota eta haien ordezt antzinako hitzak bilatu edo neologismoak (hitz “barri-barriak”) asmatu [44-45 orr.³⁵]. Altuberen ustez, bide hau Euskaltzaindiak ezin har lezake. Bide hori hartuz gero, mundu guztiko hizkuntzetan zer-nolako hitzak jasotzen diren, munduko gauzak zelan diren eta euskaldunok mundutarrak garela ahantziko genuke [45 orr.].
- 2 Euskara “dan legez” hartu eta euskaldun gehienek ahotan darabiltzaten “erdera-mordoilozko” hitz oro ontzat eman [45 orr.]. Bide hau ere onartezina da Altuberentzat, eta garbi uzten du euskara, zoritxarrez, “erdal hitz mordoiloz” hezurretaraino josita bizi dela [45 orr.].

Soluziobide gisa, bi mutur horien arteko bide bati oniritzen dio. Proposatzen duen bidea nondik nora doan argitzearren, *De Sintaxis euskérica* bere liburuan urtebete lehenago azaldutako errealitatea gogora dakar: badirudi erdaratiko hitzak ia osotoro baztertzejoera nagusitu dela [45 orr.].

Altuberen iritziz hori “akats ezin larriago” da, zeren mailegaturiko hitz arrotzen erabilera “baliabide guztiz bidezko, natural eta erabilgarria” baita hizkuntzen biziraupenerako [45-46 orr.]³⁶. Eta argudio gisa dio euskarak baino lexiko-premia gutxiago duten hizkuntzak etengabe ari direla baliabide horiek erabiltzen beren lexikoak nabarmenki aberasteko [46 orr.].

Haren ustez, erdaratiko hitzak hiru eratakoak izan daitezke: a) euskarak aspaldidanik hartu dituenak eta euskal fonologiaren arabera egokituak: *luma, landara, urkatu, erloju, balijo, pixu, liburu, makiña, kanpai, gaztelu*, etab.; b) aldaketa fonetikorik (ia) gabe herri hizkeran oso zabaldu direnak: *pelota, torre, kotxe, parrilla, lima*, etab.; c) erabilera unibertsalekoak: *politik(a), akademi(a), musik(a), orkest(a), zepelin, hotel / otel, kafe / kape*, etab [45-46 orr.]. Altubek argiro dio euskaldunok ez genukeela erreparorik izan behar “hitz-sail horiei dagozkien hitz guztiak gure hiztegiara ekartzeko” [46 orr.]³⁷.

Ondorioz, Euskal Herrian antzinatik, zabal-zabal eta ondo lur hartuta bizi diren hitzak oro hiztegitatu behar dira, nahiz euskal jatorrikoak ez izan: *arrazoi (errazoi), balijo, seguru (zigur, ziur), olijo, dantza, zapo, bala, pelota (pilota), eliza, garaun*, etab. Zazpi multzotan sailkatzen ditu:

- 1 Euskararen antza hartu dutenak, hots, euskal fonetika-legeen arabera mailegatu direnak: *mailu, jungura (“ingude”), porru, zoru, luma, landara, urkatu, erloju, pixu, eliza, errota, makiña bat, kalamatrika (“itzulinguruak”³⁸, gramatika hitzetik datorren arren), erretolika, zapo (“maltzur”), tabakorri, eliz-gizon, zapo-buru, pipontzi, artagaraun, itxulapiko, tripaki, zapokeri (“maltzurkeria”), gerrate, elizkizun*, etab. [47-48 orr.];
- 2 Euskal Herriko toki-izen eta abizenetan sustraia bota duten erdaratiko hitzak: *Torrea, Dorregarai, Torreal dai, Elizalde, Elizondo, Eleizpuru, Elizgoiti, Eleizabeitia, Gaztelugaitz, Gaztelupe, Gaztelondo, Erremeria, Erremeria, Telleria*, etab. [48 orr.];
- 3 “euskal belarrientzat” egoki-egoki datozenak: *kanpai, ezpata, kañoi, pipa, eskopeta, trunboi*, etab. [49 orr.];
- 4 Atzerriko gauzak adierazteko atzeritik hartutako hitzak: *peseta, txelin, gitarra, gobernadore, karabiñeru, goarda-zibil*, etab. [49 orr.];
- 5 Mundu osoko edo gehieneko hizkuntzek bereganatutako hitzak: *politika, musika, orkesta, hotel*, etab. [49 orr.];
- 6 Herritar xumeek aho-belarrietan sarri ibili beharrekoak: *lima, tomate, sardiña, tximiñi, makiña, zerra, eliza* etab. [49];
- 7 Euskal zein erdal jatorrikoa izan arren, erdaratiko atzizkia daramaten hainbat hitz, : *urkamendi, ondamendi, garaipen, burutansiño, asmasiño, gogorasiño*, etab. [49-50 orr.].

Hala eta guztiz ere, argi ohartarazten du nekez onar daitezkeela euskal hiztegiaren erdal sustraiaz gainera erdal atzizkiren bat erantsita duten hitzak, hala nola *limadoria, peloterua, sardiñeria, saka-kortxo, luzelektrika, kafekoletxe* eta antzekoak. Guztiarekin ere, Euskaltzaindiari erregu egiten dio *limatzaile, pelota-zain, sardiñadun...* bezalako hitz eratorri ongi eratutakoak ez baztertzeko, bestela Akademiaren euskara eta Euskal Herriarena oso nekez elkargana bailitezke [50 orr.].

Hitz berri edo neologismoei dagokienez, Altubek dio ondo eratuak eta eginikoak izan behar dutela [50 orr.]. Lehenasuna honako hauei ematen die: a) euskaldun gehienentzat esangura argi eta ulertteraza dutenak: *betaurreko*, *oñestorraz* (“tximistorrazta”), *bidekatu* (“desbideratu”), *elizain* (“sakristaua”), *gaizkatu* (“salbatu”), *gizamaila* (“hierarkia”), *goi-argi* (“inspirazioa”), etab.; b) euskaldunen artean nahikoa zabaldu direnak: *batzoki*, *aberri*, *bazkide*, *auteskunde*, *idatzi*, *idazki*, etab.; c) era berdinez edo antzekoaz eraturakoak: adibidez, *izti* “tratado”tzat behin hartuz gero, hitz horretaz baliatu beharko da esanahi horrekin loturiko hitz elkartu eta eratorriak eraterakoan [51 orr.].

Hirugarren atalean antzinako hitzak hartzen ditu hizpide. Altuberen iritziz, hitz horiek oro, arkaikoak izan edo herri koskorren batean hil aginean egon, har daitezke. Baina hitzok aintzat hartzeko, “euskal jatorri garbikoak izan behar” dute [51 orr.]. Lehenasuna, hitz berriekin bezala, honelakoek dute: a) esanahi ulertteraza dutenek: *eregi* (“altxatu, eraiki”), *asaba* (“arbasoa”); b) hedatu samarrak direnek: *txiro* (“pobre”), *eraile* (“hiltzaile”).

Azkuak berehala erantzun zion Altuberi, *Erderatiko itzak, itz sorberriak eta beinolako hitzak* titulupeko txosten zorrotzean³⁹. Aurreneko lerroan ironia finaz deitzen dio Altuberi: “gure lankide izatez hasiberri, irudiz hasi zahar honek...” [54]⁴⁰.

Gero, gaiari zuzenean helduz, Altuberen proposamenak laburbildu ondoren, aitortzen du nazioarteko kultura- eta zientzia-hitzak, “gehien-gehienak behintzat” higuin eta ingira gabe sartuko lituzkeela [55]. Ordea, euskararen aspalditxotik sustraitutako erdaratikako hitzak “gehia-goko gabe” ez lituzke hiztegitratuko. Baina gure Herrian inon ere ordezko jatorrik ez duten erdaratikako hitzak sartzeko arazorik ez du ikusten [55].

Altubek, haatik, ez zuen etsi eta bi urte geroago, 1922an, Euskaltzaindiak hala eskatuta, txosten mardul bat aurkeztu zuen Gernikan: *Euskel-hitz barrijak*⁴¹. Azpitoluak garbiro salatzen du Altuberen lanaren izaera: “*Eurok eraltzeko, erderaak zetara lagun egin bear deuskuen*”.

Hasieratik beretik argitzen du Altubek ez dela Euskaltzaindiaren ahotik mintzatuko, bere baitarik baizik. Idazlan horretan bi urte lehenago esandako ideiak errepikatzen eta sakontzen ditu. Zoritxarrez, gaztelania hartzen du beti erreferentzia-puntu, nahiz inguruko beste hizkuntzak ere gogoan dituen. Gure gaiari gagozkiola, oso interesgarriak dira maileruak euskararen fonetikara egokitzeko proposatzen dituen zazpi erregelak, horietako bat ez beste guztiak Euskaltzaindiak bere egingo dituelako Arantzazun Mitxelena eskutik, ñabardura txiki batzuk gorabehera⁴².

2. Euskaltzaindiaren
gaztelania-erdara
hiztegiaren proiektua

Azkue eta Altuberen arteko eztabaidak luzaroan jarraitu zuen. Sabindarren tesien indarra mendratzen hasia zelarik eta Euskaltzaindia erdara-euskara hiztegi bat egiten hasia zela, Altubek, 1933an, proposamen zehatz bat egin zion Euskaltzaindiari maileguzko hitzak hiztegi horretan sartzearen alde⁴³. Maileguzko hitzak bi eratakoak zekuskien Altubek: a) herri-mailakoak eta herritarren aho-belarrietan maiz eta aspaldidanik erabilitakoak; b) teknikaren alorrekoak eta nazioartekoak.

Lehenengoei dagokienez, hamahiru urte lehenago proposatutako irizpide eta adibide bertsuak laburbildu zituen. Horiexek dira, hain zuzen ere, geroago ikusiko dugunez, Euskaltzaindiak 1959ko agiri erabakigarrian “erabaki zituen berberak”⁴⁴.

Bigarren sailekoez denaz bezainbatean, europar hizkuntza gehienetan (espainiera, frantsesa, italiara, ingelesa, alemana...) zabalduak ziren kultura-alorreko eta teknika- edo zientzia-eremuetako hitzak hiztegi-ratzea proposatzen du, beharrezko lirakeen aldaketa fonetikoak kontuan izanik. Puntu honi dagokiola, Altubek ez du gaizki ikusten jada sortutako neologismo batzuk erabiltzea, baina semantika-banaketa bat eginez. Adibidez, *matematika* eta *aritmetika* onartu (“irrigarri ere litzateke hitzok baztertzea eskrupulu puristengatik”⁴⁵) eta *zenbakizti* “kontabilitate”, *zenbakiztilari* “kontable” edo “kontulari” adierazteko erabili. Nazioarteko maileguzko hitzei erantsi ohi zaizkien eratorpen-atzizkiak (“*filosof-o*, *filosof-iko*, *filosof-al...*”) euskaraz ere baliatzea proposatzen du halaber⁴⁶.

Azkuek ezezko borobila eman zion Altuberen proposamenari idatzi gogoangarri batean⁴⁷. Arrazoi nagusia Azkueren honako hitzotan aurki dezakegu: “Euskal Eskolaren bezperan gaude. Haren eraginez hurrengo belaunaldiei *gudaritaldea* hitza *ejerzitua* bezain familiarra gertatuko zaie, *itzalaldia* hitza *eklipsea* edo *eklixa* (Lekeitioko arrantzaleek diotenez) bezain familiarra, *argitaratzailea* hitza *editorea* bezain familiarra... eta abar, eta abar”⁴⁸. Eta orripeko oharrean hauxe eransten du: “Hiru neologismo horiek etorkizuneko Hiztegiaren zirriborrotik aterata daude”⁴⁹.

Testua eta testuingurua ikusita, “prestatzen ari garen Gaztelania-Euskara Hiztegia” (“[d]el Diccionario Castellano-Vasco que tenemos en preparación”) dioenean Euskaltzaindiaren izenean ontzen ari zela ulertu behar da⁵⁰. Altuberen proposamenaren mamia zorrotz kritikatzear gainera, Azkuek ez zuen begi onez ikusi gernikarrak proposamena inprentara eman aurretik Euskaltzaindiari jakinarazi ez izana⁵¹.

Zoritxarrez, baina erraz irudika daitekeenez, Azkueren eta Altuberen joera kontrajarriak bateraezinak gertatu ziren. Sabindarren garbizalekeria luzaroan nagusitu zitzaizen Azkueren garbizaletasun hertsuari eta Altuberen zentzuzko jokaerari.

Hamarkada luzetan euskaltzaleen artean eta, ondorioz, horien isla eta ordezkari izan nahi zuen Euskaltzaindiaren baitan ez zen batere argitu zein ziren benetako euskal hitzak edo euskal hitz jatorrak.

XX. mendeko bosgarren hamarkada arte itxaron beharko da Altuberen hiztegi gintzari buruzko irizpideak, ñabardurak ñabardura, nagusitzen hasteko. Manuel Lekuona, Aita Villasante, Koldo Mitxelena, Patxi Altuna, Gabriel Aresti, Jose Luis Alvarez Enparantza “Txillardegi” eta beste hainbat ditugu pentsaera eta joera zaharberri eta indarberritu baten defendatzailek bipilenak. Horiexek izango dira, hain zuzen ere, 1959ko Euskaltzaindia indarberrituaren harako adierazpen sonatu hura alde eta moldez bultzatu zutenak.

Adierazpenaren izenburuak berak salatzen du gaiaren munta, eta edukiak bazterrak inarrosi egin zituen: *Euskaltzaindiaren agiria euskal hitzei buruz*⁵². Adierazpen honek mugarrri bat finkatu zuen euskararen batasunaren historian eta, ondorioz, hiztegi batuarenean. Hona hemen adierazpen erabakigarri haren mamia.

3. *Euskaltzaindiaren
agiria euskal hitzei
buruz (1959)*

Hiztegi-sailean, dio, “ez da bidezko hitz asmatuetara jotzea ezin bestez baizik, eta orduan ere hitzen erabidean hizkuntzaren joerak gordeaz. Hori hiztegiari gagozkiola. Gramatikaren barrutian, ordea, ez da sekula zilegi asmatzen ibiltzea edo hizkuntza aldatu nahi izatea”. Jarraian euskal hitzen definizio argia ematen du Euskaltzaindiak, letra etzanez azpimarratzen duela dioenaren garrantzia: “*euskal hitzak dira euskara bizian sustraituak daudenak*”.

Hiru irizpide proposatzen ditu hitz bat ongi sustraitua dagoen edo ez jakiteko: hedadura edo zabalgoa (“*zabalunea*” dio adierazpenak), antzinatasuna eta idazle zaharren erabilera. Beraz, sustrai handiko hitzak euskal hitzak dira, zehaztasun garrantzitsu bat eransten duela: “nahiz eta erdaratik etorri”. Izan ere, dio agiriak, gure hiztegian ugari ditugu horrelako hitzak: “jatorriz kanpotik sartuak, baina euskaran gogotik errotuak daudenak, alegia”.

Hitz horiek guztiak “etxeko bihurtuak dauzkagu” eta “gure-gureak dira”. Areago esatera ausartzen da Euskaltzaindia: erdaratik euskal hitz sustraidunak eskubide osoz erabil daitezke eta, beraz, ezin daitezke baztertu haien ordezt hitz berri sustraigabeak erabiliz. Agiriaren hitzez esateko, hitz sustraituen “lekuan erabiltzeko asmatu diren hitz berriak ez dira gehienetan euskal hitzak eta ez dute haien hainbat eskubide erabiliak izateko”. Jarraian, adibide eta argigarri gisa, hitz-zerrenda adierazgarri bat ematen du:

abendu, aingeru, alkate, amodio, arima/anima, abade, apez/apaiz, apostolu, arraza, arrazoi, bake/bake, balio, bekatu/pekatu, berba, bertso, bedeinkatu/benedikatu, birjina, bertute, borondate, doe/doai, damu, deabru, denbora/denpora, dantza/jantza, diru, desegin, errege, erlijio/erlegiño, eliza/eleiza/elexa, eskola, espiritu/izpiritu), familia/pamili, fede, fruitu/fruitu, finkatu, gorputz, gramatika, gloria/loria, grazia/garazia, imajiña, inpernu/infernu, imitazio/imitaziño/imitazione, jende/jente, joku, kantatu, kolore, kafe, karia-dade, komunio/komuniño/komunione, kanpo, kontra, kanta, liburu, lore/lora, lege, mundu, meza, modu, molde, moldatu, obeditu, olgeta, partitu,

*paradis/parabisu, barkatu/parkatu, pentsatu, pentsamendu/pentsamentu, sakramentu/sakramendu, santu/saindu, seinale, testamendu, umil, zapata, zentzu/zentzun, zeru...*⁵³

Euskaltzaindiak dio hitz horiek guztiak eta “antzekoak diren beste asko” eskubide osoz erabil daitezkeela, “euskaldunak, jatorrak eta garbiak direlako”; eta, hartara, idazle eta hizlariei eskatzen die erabil ditzatela, “hitz asmatuetara jo gabe”. Azkenik, nazioartean erabiltzen diren kultura eta zibilizaziozko (“zivilizazio” idazten du) hitzak ere begi onez ikusten ditu, hala nola *politika, teknika, literatura, liturgia, metro, kilometro*, etab.

Agiri honek itzulbiderik gabeko norabide bat markatzen du euskara batuaren historian eta, bereziki, Hiztegi Batuaren proiektuan. Agiri horrekin Euskaltzaindiak hautsak harrotu bazituen ere, hamarkadetan oker planteaturiko eztabaida antzuarri hautabide zentzuzko bat eman ahal izan zion eta Batasuneranzko Hiztegiaren proiektua esku artean hartu ahal izan zuen berriro, oraingo honetan aurreiritzi purista eta ez-zientifikoak bazter utziz; ez, ordea, jada egindako lana zapuztuz, baizik eta ordu arte egindakoari garbitu kritiko eta metodologiko bat emanaz.

4. Azkueren
Hiztegiaren edizio
kritikoaren proiektua
(1956-1969)

Horretarako, Euskaltzaindiak deliberatu zuen Azkueren hiztegi handiaren edizio kritiko eta osotu bat prestatzea. Kapituluaren hasieran esan dugunez, Mitxeleneri egotzi zion Euskaltzaindiak eginkizun hori 1956an, hura baitzen, urrik eman ere, hiztegi gintzan aditurik onena, “hartarakoena”, Villasanteren hitzez esateko⁵⁴. Urteak zeramatzan jada Mitxelena euskal hitzen ondarea zorrotz eta metodikoki aztertzeko, linguistika zientifikoaren arau seguruen galbahetik ordu arteko hiztegiak eta iturriak iragazten. Lan neketsu eta isil horren emaitza bikaina *Estudio sobre las fuentes del Diccionario de Azkue* dugu, 1965ean argitarata emana⁵⁵. Ikerlan honetan ezarri zituen euskal hiztegi berri baten oinarriak.

Azkueren hiztegiaren azterketa zientifikoak denboraren poderioz erakutsiko zion Mitxeleneri lekeitiarraren obraren edizio kritikoa baino emankorrago eta premiazkoago zela euskal hiztegi berri bat egitea, Azkuerenak baino irizpide eta iturri zabalagoetan oinarri hartuta. Horrela sortu zen, hain zuzen, alde eta aldi orotako euskal hiztegi deskriptibo eta orokor bat ontzearen ideia, gerora *Orotariko Euskal Hiztegia* izenez ezagutuko zena.

Guztiarekin ere, hamahiru urtez jardun zuen Mitxelena edizio kritikoa prestatzen. Areago, material ugari bildu eta ohar kritiko anitz egin ondoren, edizio kritikoa zirraborro metodiko bat idazteari ekin zion. A, B, D, E eta G letren zirraborro oso aurreratua zuen 1969rako. Baina proiektu hori bertan behera gelditu zen, Sarasolak 1988an publikoki jakinarazi zuenez⁵⁶, Martin de Retanak 1969an Azkueren lehen edizioaren berrinprimatze *facsimile* bat argitaratu zuenean⁵⁷.

Berrinprimatze horrek, Euskaltzaindiaren baimenik gabe baina euskaltzain batzuen laguntzaz⁵⁸, Azkueren beraren eta beste euskaltzain batzuen eranskinak ere, “Suplemento” modura, eman zituen argitara⁵⁹. Gauzak honela, Mitxelenak erabaki zuen hasierako proiektua eraldatzea eta hiztegi berri bat egiten hastea, tradizio lexikografiko eta literario baliagarri guztia deskribatuko lukeena.

III. Arantzazuko Batasunerako Hiztegitik Hiztegi Batu osoaren prestaketara (1968-1990)

1968. urtean Arantzazuko Batzar gogoangarrian euskararen batasunari berebiziko bultzada eman zitzaion. Egun ezagutzen dugun euskara batuaren oinarri nagusiak han finkatu ziren. Lau urte lehenago, Baionan, euskal idazle-talde aitzindari batek batasunaren premia ozenki eta eraginkorki aldarrikatua zuen, gerora ezinezko helburutzat harturik. Aldarri horren emaitza Euskaltzaindiaren Arantzazuko Biltzar Nagusia izan zen, bertan euskaltzainak ez ezik euskal idazle ugari bildu zirelarik.

1. Azkueren Hiztegiaren azterketa kritikotik Euskal Hiztegi Orokorrerantz

Biltzar haren emaitzak ezin oparagoak izan ziren, orduko baldintza soziolinguistikoak eta soziopolitikoak ikusita batik bat. Hiztegitantzari dagokionez, hamarkada batzuk lehenago abian jarritako proiektuari berrekitea deliberatu zuen, baina oinarri sendoagoak finkatuz aurrenik, eta, bestetik, oraingoan euskaratik euskararako hiztegi bat ere prestatuz, hots, “euskal hitzak euskaraz azaltzen ditue-na”, Mitxelenaren hitzez esateko⁶⁰. Praktikan, berrogei urte lehenago hasitako gaztelania-euskara hiztegiaren proiektua eraldatu egiten da errotik. Alde batetik, euskal hiztegi orokor eta ahalik eta osoen baten beharra sumatzen da, Azkuerenaren edizio kritiko soiletik harago lihoakeena. Eta bestetik, euskarazko hiztegi baturanzko baten premia gorria ikusten da. Hiztegi bakar batek bete ote litzake bi premiok? Ezezkoan dago Mitxelena.

Egia esan, urte luzez Azkueren hiztegiaren edizio kritikoaren prestaketan jardun ondoren, Mitxelena konturatzen hasia zen hiztegi horren edizio kritikoa baino premiazkoago zela euskal hiztegi deskriptibo orokor bat egitea, batetik, eta, beronen argitan, bestetik, euskal hiztegi batu “bide-erakusle” edo arauemaile bat ere eginez joatea. Hona hemen nola bereizten dituen bata eta bestea Mitxelenak 1968an.

Hiztegi deskriptibo orokorrak bi helburu jakin ditu: “jakite-lanak” asetzea, batetik, eta, “beste edozein hiztegitarako oinarri” izatea, bestetik. Horretarako, “hango eta hemengo euskalkietako hitzak eta hitzen aldaerak” jaso behar ditu, eta “oraingoak ez ezik, baita antzinako euskal ondasunak eta hondakinak” ere bildu beharko ditu. Mitxelenaren ustez, lan horren zati handi bat, “oso-osoan ez bada ere”, Azkue eta Lhanderen hiztegietan daukagu, zuzenketa kritikoak gorabehera. Eta, beraz, hauen lana osatu eta zuzendu beharra dago⁶¹. Horixe izango da, hain zuzen ere, Mitxelenaren geroko *Orotariko Euskal Hiztegiaren* xede eta helburu nagusia.

Baina, orotariko hiztegi horrek ez ditzake egarri guztiak ase. Euskal idazle, hizlari eta irakurle-entzuleak bateratuko dituen hiztegi *gidari* baten beharrean daude. Horientzat guztientzat “hiztegiak gidari beharko du izan, bide-erakusle, eguneroko hizkera baino goragoko batera gidari, nahiz goragokoak, nonahi gertatzen den bezala, beheragokoan finkatua eta errotua izan”⁶². Hartara, hiztegi gidari horrek ez luke izan behar “Azkue eta Lhanderen hiztegien bikoia, erretratua edo irudi hizkuntzaz aldatua”. Horren arrazoia erabiltzaileen tipologian eta bilaketa espezi-fikoan datza, “erabiliko dutenak ez baitira Azkue-Lhanderegana jotzen dutenak berberak eta berdindu nahiko duten egarria ere ez baita berbera”⁶³. Areago, hiztegi batua gidari izango bada, Euskaltzaindiak ezin utziko du hitzen aukera eta hautaera erabiltzailearen eskuetan, “ezinbestean baizik”, eta, beraz, ezin ezarriko ditu “*hitz guztiak*”⁶⁴.

Hitz guztiak dioenean, hiru hitz multzo ditu gogoan: a) euskal hitz ugari-aren aldaera ezberdinak; b) erdaratiko hitzen multzo handia; c) azken mendeetan asmatutako neologismo ugariak. Non eta nola landatu mugak?

Lau galdera nagusi egiten ditu Mitxelenak, hiztegi batuaren nondik norakoak argitzeko asmoz: “Zein eta zenbat hitzen aldaera jasoko ditugu hiztegian? Hitz zaharrak eta zaharkituak ere bai? Egungo eguneko erdaretatik hartu ditugun eta hartzen ari garen hitzak noraino hartuko ditugu ontzat eta zein itxuratan? Hitz berriak ere, zein eta zenbateraino?”.

Hiztegia egiten “hasi baino lehen” erantzunak egon beharko dute galdera horiek. Mitxelenaren ustez, hiztegirako gaien bilketa ez da atzerarazi behar, baina gaien antolaketa sistematikoa baino lehen galdera horien erantzuna argitu beharra dago⁶⁵.

Mitxelena jakitun da proposatzen duen metodologia zorrotz emankorrak bere iluna duela, alegia hiztegi batuaren proiektua geroko luzamendutan gerora eta luzetsi daitekeela. Horrexegatik hitzok eransten ditu: “Ez dut horrenbestez esan nahi hiztegi-lan hau bertan behera utzi behar lukeenik Euskaltzaindiak. Ez du utzi behar, baina ezin has daiteke besterik gabe hiztegia idazten; ez horrenbeste saltsa garbitu gabe dauzkan bitartean. Gai-bilketan, ordea, gaiak fitxetan ipintzen eta abar, berehala hasi behar luke, lan hori ere behar-beharrezkoa baita”⁶⁶.

Azkenik, hiztegiaren hezur-mamia honela laburbiltzen du errenteriarrak: Hiztegiak izan behar luke “aukeratzailea, neure iritziz, hautatzailea, hobe makurratetik bereziko duena, eskoletan, liburuetan, aldizkarietan, hitzaldietan, erabili behar litzatekeen euskara jaso eta ikasiaren mugarri eta eredu izan daitekeena, irina eta zahia, garia eta belar gaiztoak bereizten dakiena”⁶⁷.

Hitzok agerian uzten dute, inork uste izan duenaren kontra, Mitxelenaren irizpideak ez direla teoriko hutsak. Teorikoak eta praktikoak batera baizik. Artikuluaren amaieran iragaitzaz bezala Plazido Mujikaren hiztegia aipatzen badu, ez da helburu jakinik gabe.

Hiztegi horren merituak gutxietsi nahi gabe, Euskaltzaindiaren hiztegi batuak era horretakorik ez duela izan behar argi utzi nahi du Mitxelenak. Funtsean, Mujikaren hiztegia Azkue edo Lhanderen ildo bertsutik abiatua zelako. Hiztegia oso da aberatsa, zinez, baina ez bide-erakuslea ez hautatzailea, ez eta euskara jasoaren arauemailea ere, ez baitu argibiderik ematen erabiltzaileak zer hautatu edo hobetsi behar duen jakiteko⁶⁸.

2. Batasunerako lehen hiztegia (1968-1970)

Arantzazun hartutako erabakiari erantzunez, Euskaltzaindiak lehen hitz-zerrenda batu txiki bat proposatu zuen 1968an, Mitxelenaren eskutik eta Villasanteren irizpide nagusiei jarraikiz⁶⁹. 2.000 hitzeko zerrenda bat proposatu zuen Mitxelenak, **Batasunerako Hiztegia** izenez. *Euskera* aldizkarian argitara eman zen⁷⁰. “Hitzik usatuenak eta hedatuenak, hizkuntza idatziari dagokionez” bildu ziren bertan, usadioari eta zabalgoari lehenetsia emanez horrenbestez⁷¹.

Han finkatu zen aurreneko aldiz, Euskaltzaindiaren izenean, *H* letraren erabilera, 1968ko urriaren 5eko adierazpenean plazaratutako erabakiaren arabera⁷². Hitzurrean esaten zaigunez, hitzen formak baino ez ziren finkatzen: “hitz batek aurrealdean nahiz erdian *h* bat behar lukean ala ez, *s*-kin idatzi behar litzakean ala ez, azkeneko *-a* berezkoa duen ala erantsia, *-o* duen bukaeran ala *-u*, eta abar”⁷³.

Semantika aldetik ematen diren azalpen edo argibide urriak euskara hutsez egiten dira. Beren urrian, eta lehen aldiz, euskara metahizkuntza ere badela adierazten dute. Bi urte baino lehenago bigarren zerrenda bat osatu zen, dezente luzeagoa (5.810 hitz). Oraingoan benetako hiztegi itxura du, bere laburrean. Oraingo honetan, Gabriel Arestik hautatu zituen hitzak eta berauen forma, eta Xabier Kintanak hitz guztien definizioak landu zituen.

Euskal Idazleen Elkarteak, 1970eko ekainean, *Batasunaren Kutxa* titulupean eman zuen argitara, deklinabideaz eta aditz-batasunaz 63 euskaltzain zein euskal idazlek proposaturiko arauekin batera, betiere, azpтитuluak dioenez, “Mitxelenaren promesaren pean”⁷⁴. Hiztegi horren berezko titulua oso adierazgarria da: “**Lehen euskal hiztegi bateratua. (Bigarren prestaera)**”⁷⁵.

Hiztegi honek ezaugarri garrantzitsuak ditu ordu artekoekin alderatuta, 2.000 hitzeko aipatu zerrenda alde bat utzita:

- Lehen euskal hiztegi bateratua da, Euskaltzaindiak finkaturiko irizpideen arabera osatua eta behar diren zuzenketa guztiak egiteko prest ageri dena.
- Aresti eta Kintanaren elkarlana bada ere, 63 euskaltzain zein idazleren babesarekin argitaratzen da.
- Lehen euskara-euskara hiztegia da: definizio eta argibide guztiak euskaraz eta euskara hutsez eginak datoz.

- Lehen hiztegi moderno edo hiritartua da. Kultura eta zientziei buruzko terminologia ugari dakar, ordu arte beste ezeinek ez bezala.
- Purismoa nabarmenki baztertzen du, baina ez du inorekiko aipamen kritikorik ez polemikorik egiten. Euskaltzaindiaren 1959ko agiriari jarraikiz, *arima, aristokrazia, arkitekto, arraza, baso, dogma, doble, desobeditu, efikaz, esfinge, eskailera, esposa, estudio, estrategia, gobernu, gurutzifikatu, geometria, fama, familia, fantasia, ikonoklasta, lastima...* bezalako hitz ugari dakartza. Baina, erroto samarreko neologismoei ez die atea ixten: *done, guda, ikastola, ikurrin, laterri, ludi...* *Des-* aurrizkiaz beldurrik gabe baliatzen da: *desagertu, desenkusa, desgogara, desobedientzia, desordu...* (guztira 17 hitz).
- Ortografiari dagokionez, lehen zerrenda batuaren ildotik doa, 270 hitz inguruk *H* letra hasieran daramatela.
- Hitzen aukeraketak nahiko orekatua dirudi, euskara idatziaren usadioa eta hedadura bereziki hartu direla kontuan.

3. Zortzi urte arteko ikastola hiztegia (1975)

Lehen ikastolen ugaltze eta hazkundearekin batera batasunaren premia handitzenago doa. Euskal andereño eta irakasleek bultzaturik, Euskaltzaindiak lehen ikastola-hiztegi bat prestatzeari ekin zion eta 1975eko irailean argitara eman *Zortzi urte arteko ikastola hiztegia* tituluarekin. 1784 hitz ditu, gaika antolatuak (20 denetara). Lau ataletan banatua dago. Lehenak gaztelania-frantsesa-euskara hitz-zerrendak (20 zerrenda elkarren segidan, gaika bereizirik) dakartza. Bigarrenak euskarazko hitz guztien zerrenda alfabetoaren arabera ordenaturik. Hirugarrenak eta laugarrenak, hurrenez hurren, gaztelaniazko eta frantsesezko hitz guztien zerrendak, hurrenkera alfabetikoaren arabera betiere.

Bere xumean aurrerapauso handia izan zen hiztegi hau. Hitzaurrean Villasante euskaltzainburuak hiztegiaren mugak aitortzean argi uzten du zein zen orduko hiztegi batu hiritartuaren egoera:

“Badakigu hiztegi honek bere itzalak eta hitz diskutigarriak dituela. Gaur gauden egoeran ez dut uste, gainera, eremu huntan lan oso-osook eta egin-eginekoak inork eskain ditzakeenik”⁷⁶.

Euskaltzaindiak, dio Villasantek, nahiago izan du, ezin atzeratuzko beharrian bati erantzunez, tresna mugatu bat eskaini, “oso-osokoa eta guztiz kunplituia izan daitekeen hiztegiaren begira egon baino”⁷⁷.

4. Mitxelenaren Orotariko Euskal Hiztegia (1987-2004)

Hirurogeita hamar urte behar izan ziren Euskaltzaindiaren sorrerako xede nagusietako bat hezurramitzen ikusteko. 1987. urteko hondarrean ikusi ahal izan genuen aurreneko aldiz *Orotariko Euskal Hiztegiaren* lehen liburukia, ia 900 orrialdeko bolumen sendoa *A-Ama* hitzak biltzen zituena. Beste hamabost bolumen jarraituko zitzaizkion lehenengoari. Azkenak, hamaseigarrenak, 2005. urtean ikusi zuen lehen argia.

Hiztegi Batua oinarri nagusia izan den aldetik, hona hemen *Orotariko Euskal Hiztegiaren* ezaugarri aipagarrienak:

- Aldi eta alde guztietako ondare lexiko osoa biltzen du, hots, garai eta euskalki orotakoak⁷⁸. Bilketaren urte-muga 1970 inguruan kokatzen da, nahiz batzuetan geroztiko lekukotasun batzuk ere ematen diren. Ia hirurehun liburu klasikoren hustuketa sistematikoa egin zen horretarako eta bibliografia lexikografiko eta gramatikal esanguratsu guztia arakatu.
- Hiztegi deskriptibo, historiko eta orokorra da, eta ez normatiboa Erabilitako autoreak eta testuak kronologikoki eta dialektalki sailkatu dira, horien guztien artean “oreka bat” bilatuz eta hizkuntzaren barietate eta erregistro ezberdinen lekukotasunak eskainiz, hitz lauz eta neurtuz, maila jasoan nahiz herri hizkeran⁷⁹.
- Ez da hiztegi arauemailea, baina behar adina datu geografiko eta historiko ematen ditu, aukerako autoreen balorazioa ez ezik, “irakurleak beharrezko diren oinarriak izan ditzan dudako kasu anitzetan”⁸⁰.
- Sarrera-hitz kopuru aldetik, inoiz egin den bilketarik handiena eskaintzen du: 125.000 hitz inguru, bigarren mailako aldaerak kontatu gabe. Hitzen kopuruaren tamaina hagitik handiaz jabetzeko, kontuan hartu behar da ez dela hiztegi hiritartu bat eta, beraz, zientzia eta teknika aldetiko lexikoa apenas biltzen duela⁸¹.
- Sarrera-hitzak lexiko-unitateak dira, *lemak* deritzenak. Lemak aukeratzeko irizpide nagusia usadioa izan da. Araurik emateko asmorik gabe baina argibiderik eskaini nahian, letra beltzaxkaz ageri dira “*standard* literario” deritzanerako proposa litezkeen formak, zalantza handiak daudenean forma bat baino gehiago ematen direla⁸².
- Euskalki erreferentziak –azken ehun urtekoak– eta horien iturri nagusia(k) parentesi artean ematen dira; ondoren lemaaren aldaera aipagarriena(k), beren euskalki markarekin eta iturria seinalatuz; gero hitzaren kategoria gramatikala; hurren gaztelaniazko esanahia zalantzagabea denean, baina iturri bakarra hiztegi baten edo batzuen aipamena denean iturriak ematen duen gaztelaniazko edo frantsesezko baliokidea ageri da bakarrik, koma bikoitzen artean; segidan erreferentziazko hiztegiek lema egotzi dioten esangura, koma bikoitzen artean betiere; azkenik, eta kronologikoki ordenaturik hitzaren erabileraren lekukotasun nagusiak, erreferentziazko autoreen adibide aipagarrienekin batera.
- Azkueren hiztegiaren tradizioari jarraikiz, *H* letrari ez zaio ortografia-baliarik eman. Erabaki hau eztabaidagarria bada ere, gogoan hartu behar da, Sarasolak gogorarazten digunez, *Orotariko Hiztegiaren* oinarriak Mitxelena landatzen hasi zenean euskara baturik ez zegoela eta gero, lana areago ez atzeratzearren, bere horretan uztea deliberatu zutela⁸³.

- Aurreko hiztegi guztietan bezala, *Batasunaren Kutxa* izenekoa salbu, jakina, erdara erabili da metahizkuntzat. Egitate hori ukaezina bezain aitortua da. Bi arrazoi nagusi izan dira horretarako, Sarasolak berak garbiki eta lañoki esan duenez.

Lehena, praktikoa: euskara ez dugu oraindik, besterik nahi bagenu ere, “kultur hizkuntza eroso, eta zenbait gairi buruz, gutxieneko etekin batez eta erabat lardaskatu gabe aritzea lan benetan nekeza da”.

Bigarrena garrantzi handiagokoa da: obraren “nazioarteko homologazioa” bilatu da eta munduan zeharko euskalariei ere begira egin da⁸⁴. Guztiarekin ere, euskarazko adibideen ugaritasunak eta kalitateak euskarari berebiziko maila eta erreferentzia ematen dio *Orotarikoak*, aurreko hiztegiek ez bezala. Areago, esango genuke euskara *ere* metahizkuntza gisa ageri dela hiztegian. Bestela, nola uler eta goza liteke probetxuz Hiztegiak eskaintzen dituen aldi eta alde orotako euskarazko esaldi eta esapide eredugarrien uholde ordenatu miragarria?

Mitxelenaren hiztegi handiaren helburuaz eta metodologiaz hobeki jabetzeko, aurreko hiztegiekin alderatu behar da, bereziki Azkuerenarekin, berau izan baita, *Orotarikoak* argitara baino lehen, euskal hiztegi nagusia. Mitxelenak Azkueren lanari zion begirunea behin baino gehiagotan aitortu zuen. Begirune hori izan zen, hain zuzen ere, urte luze neketsutan haren hiztegi handiaren azterketa kritikoa egitera bultzatu eta adore eman ziona.

“Begiramena zor diegunekin bakarrik egiten dugu lan hori, eta zor diegun begiramenaren arabera. Eta Azkueri adina inor gutxiri zor diogu euskaldunok” izkiriatu zuen Mitxelenak *Estudio sobre las fuentes del Diccionario de Azkue* ikerlanaren “Eskaintza”n⁸⁵. Mitxelenaren ondoren Azkueren obra lexikografikoa gehienik eta zorrotzenik aztertu duen I. Sarasolak ere aitor du Azkuerekin euskal hiztegi gintzaren etapa berri bat hasi zela eta, areago dena, “euskara batuaren hiztegi azterketa egin diren saioen oinarria ere” izan zela haren hiztegi handia⁸⁶.

Haatik, Mitxelenak eta Sarasolak Azkueren obraren mugak gainditu nahi eta behar izan zituzte *Orotarikoak* egiterakoan. Saihets ezinezko akats teknikoek landa, bi makur nagusi zituen Azkueren hiztegiak: a) hiztegi deskriptiboa izanik, ez zuen “euskararen zati bat baizik deskribatzen”. Gorago aipatua dugu jada “nola baztertu zituen hainbat euskal hitz, erdaratikakoak zirelako”; b) baina purismoak ez ezik, beste gaitz batek ere hartua zuen lekeitiarra: populismoak.

Izan ere, Azkue “garbizaleaz gainera, populista zen” eta, ondorioz, *ahozko* euskara (zehazkiago: “euskaldun ideal baten ahozko euskara”) aintzat hartu zuen ia bakarrik. Hiztegian bildu zituen idazleen testuak “ahozko euskara horren ispilu –bere ustez– ziren neurrian jaso zituen soilik”, Sarasolak salatu duenez (*Ib.* VIII orr.). *Orotarikoak* bi akats horiek gainditu dituela esan dezakegu, lehentasuna tradizio idatziari eman zaiolako eta euskarari ongi erroturiko hitz guztiei beren euskalduntasuna eta jatorria aitortu zaielako, jatorria jatorri.

Makur horiez gain, Azkuek ez zuen behar adina aintzat hartu euskararen eboluzioa, ez eta hizkuntzari dagozkien mailak eta erregistro ezberdinak ere. Euskal hitzen ondarea ez dago denboraren joan-etorrien gorabeheretatik aparte. Orobat, euskal hitzak ez dira guztiak edozein maila eta erregistrotan erabiltzekoak. Azkueren garaian ofizioko lexikografoek bazekiten hori guztia, nahiz gizartean hizkuntzaren ikuspegi esentzialista eta ez-historikoa (eta orobat ez-soziala) oso hedatua zegoen orduan ere.

Azkuerengan akats horiek barkagarri badira, ez dira hain ulergarri Azkueren ondotik egin diren hiztegi-lanetan, Sarasolak kritikatu duenez. Izan ere, Azkueren hiztegia “osatzeko egitekoan aritu zirenak, batez ere bitxitasunak eta txokokeriak biltzera ahalegindu ziren, gure hitz-ondarearen irudia eta itxura areago desitxuratuz eta desorekatuz”⁸⁷.

Orotarikoak, ordea, hiztegi etimologiko izan gabe⁸⁸, hitzen erabilpenaren datazioaren berri ematen digu, eta haien eboluzio semantikoa auto-reen eta eremuen arabera. Era berean, maila eta erregistro ezberdinak adierazten dira modu batean edo bestean.

IV. Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuaren metodologia eta edukia

Arantzazun erabaki zuen Euskaltzaindiak hiztegi batu bat egitea. Gorago azaldua dugu Mitxelenak proiektu hori gauzatzeko proposatu zuen metodologia. Haren ustez, gai-bilketa lana eta bilketa sistematikoa behar zen aldeaz aurretik eta orenen gainetik, hiztegi batua antolatzen eta euskara baturako hitzak eta berauen erabilerak finkatzen hasi baino lehen. Hiztegi deskriptibo orokor bat oso aitzinatua egon gaberik, nekez ekin zekioken hiztegi batua taxuz antolatzeari.

Azkenean, hogeitau urte geroago *Orotariko Euskal Hiztegia* errealitate atzeraezin egiten hasi zen. Bestalde, Mitxelenaren Hiztegia argitaratzen hasi baino hiru arte lehenago, 1984an, I. Sarasolak *Hauta-lanerako Euskal Hiztegia* –arauemailea berau– izenekoaren lehen liburukia (*A-Aurten*) emana zuen plazara, 1977an hasitako lan metodiko eta pazientearen lehen fruitu heldua hezurmamituz⁸⁹. Gauzak honela, eta ezinbesteko erritmo astunean izan arren, bazirudien Mitxelenaren protokolo metodologikoa betetzen ari zela eta luze gabe Euskaltzaindiak ekin ahal izango ziola bere aspaldiko ametsari.

1. Lehen hiztegi hiritartu elebidun handiak: X. Kintanaren *Euskal hiztegi modernoa* (1977, 19802) eta L. M^a Mujikaren *Diccionario vasco general y técnico* (1977)

Baina urteak ez ziren alferrik igarotzen ari eta euskararen batasuna bidean jarria zenetik hamaika ikastola, euskal eskola, ikastetxe eta euskaltegi (Udako Euskal Unibertsitatea eta hainbat unibertsitate-mailako ikasketa ahaztu gabe) zabalduak ziren ordurako eta ez zegoen haien guztien premia aseko zuen euskal hiztegi baturik edo baturanzkorik⁹⁰. Hutsune nabari hori betetzeko asmoz, Xabier Kintanak eta bere lantaldeak 1977an *Euskal hiztegi modernoa* argitara eman zuten, eta urte berean Luis M^a Mujikak *Diccionario vasco general y técnico* izenekoa. Biak elebidunak: gaztelania-euskara eta euskara-gaztelania.

Ez dugu hemen lekurik hiztegi hauen balio ukaezina eta mugak aztertzeko. Diogun, halere, orduko premiari nahikoa egokiro erantzun ziotela eta hainbat urtez lagungarri oso, zein gehiago zein gutxiago, gertatu zirela, lehen hiztegi hiritartu elebidun handiak ziren aldetik. Izan ere, eta 1980az geroztiko edizioetan *ph*, *th*, *kh* letra bikoitzen eta *y* grekoaren erabilera sistematikoari uko egin ondoren bereziki, Xabier Kintanarenak arrakasta handia izan zuen luzaroan⁹¹.

Euskal literatur tradizioa nahikoa kontuan izana zuen eta aurreko euskal hiztegi dezentez baliatu zen, Batasunaren Kutxaz eta Azkuerenaz bereziki. L. M^a Mujikarenak ere zerbitzu handia eman zuen zenbait urtez, besteak beste, Txillardegiren laguntza baliotsuaz teknika eta zientzia arloko hitz berri ugari proposatu baitzituen, erdaren kalkoetara etengabe makurtu gabe.

Espero zitekeenez, bi hiztegiok ere kontuan izan zituen Sarasolak bere *Hauta-lanerako Euskal Hiztegia* egiterakoan. 1983an Euskaltzaindiak “Hiztegi gintza Batzordea” sortu zuenean, Kintana eta Mujika batzordekide izendatu zituen, Mikel Zalbide (idazkari), Rikardo Badiola eta Txomin Peillenekin batera, Koldo Mitxelena eta Ibon Sarasola batzordeburu eta buruorde zirelarik, hurrenez hurren.

Bestalde, 1978an *UZEI (Unibertsitate Zerbitzurako Euskal Institutua)* erakundea sortu zen unibertsitateko oinarrizko lexiko eta hiztegi berezituak prestatzeko asmoz. Euskaltzaindiak harako *Zortzi urte arteko ikastola* hiztegi hura kaleratu zuenez geroztik bizpahiru hiztegitxo espezializatu baino ez zituela argitara eman: *Matematika hiztegia*, *Arkitektura hiztegia* eta, Xabier Kintanaren eskutik, *Merkatalgo izendegia*⁹².

Premien itsaso zabala ezin zitekeen errekasto xume batzuekin bete. Argi zegoen esku eta irizpide seguruak behar genituela euskaldunok euskara unibertsitateko beharretara eta, oro har, kultura unibertsaleko gaietara egokitzeko. Baina nola erantzun premia gorri haiei? Zilegi ote zen presaka eta edozein modutan behar adina ondu gabeko hiztegi edo hitz-zerrenda espezializatuak plazaratzea? Ongien egin zitzaketenek ez bazituzten egiten, noiz arte itxaron behar zen? Noiz arte, urterik urte luzesten ziren oinarrizko hiztegi bide-erakusleak ezinbestean atzeratzen ari zirela ikusita?

Testuinguru horretan kokatu behar dira ondoko urteetan sortu ziren polemika mingarriak euskal hiztegi gintzaren inguruan, sekulan modu hartan gertatu behar ez zuketenak, egia esan. Orduko polemikaren mingotsa gutxietsi gabe⁹³, denborak batzuen eta besteen iritziak eta lanak balioesteko aukera emango du. Denok ikasi dugu besteengandik, nork gehiago nork gutxiago. Baina urteak behar izan dira ur uher biziak osoro garbitzeko eta baretzeko⁹⁴.

2. *Euskaltzaindiaren
hiztegigintzari
buruzko plangintza*

Guztiarekin ere, bere hitsean, eztabaidak balio izan zuen Euskaltzaindia arazoaren tamainaz jabetzeko eta hiztegigintzaren ardura bere gain indar berriz hartzeko. Hala, luze gabe ohartu zen Akademia euskal hiztegigintzaren gidaritza gorena berari zegokiola eta metodologia egoki eta zentzuzko bat behar zuela planteatu. 1981eko urtarrilean bertan, Loiolan, Hiztegi Batzorde bat sortu beharra ikusi zuen Euskaltzaindiak. Urte haren hondarrean, abenduaren 29an, adierazpen bat egin zuen Hondarribian hiztegi-lana bere eginkizun nagusietako bat zela aitortuz eta hiztegi orokor, hiritartu eta espezializatuei buruzko zenbait irizpide eta egitasmo aditzera emanez⁹⁵.

Euskaltzaindiak 1982ko martxoaz geroztik zenbait lantalde sortu zituen horretarako. 1983ko apirilean “Hiztegigintza Batzordea” sortu zuen bere Iker Sailaren barnean. 1984ko urtarrilean Batzordeak 1984-1996 epealdirako lan-programa zehatz bat aurkeztu zuen, bertan bi etapa bereizten zirela⁹⁶.

a Lehenengoan, 1984-1990 epealdikoan, hiru xede nagusi definitu ziren: 1) Euskal Hiztegi Nagusia (hiztegi deskriptibo orokorra, alegia) aurrera eramatea; 2) Lexikologia-irizpideen finkapena abian jartzea⁹⁷; 3) Egungo euskararen bilketa-lan sistematikoari ekitea.

b Bigarreanean, 1990-1996 epealdikoan, bi helburu nagusi finkatu ziren: 1) Hiztegi hiritar arauemailea prestatzea; 2) Jakintzagai eta bizigune desberdinetarako terminologia teknikoak sortzea.

Lan horiek, haatik, uste baino denbora gehiago hartu zuten. Horren froga Euskaltzaindiak 1986ko urrian, Lekunberriko bileretan, hartu behar izan zuen erabakia, alegia sasoia ez zela iritsia berak “hitzak bana-banaka erabakitzeko”, Villasanteren hitzez esateko⁹⁸. Hala, Arantzazuko Batzarra eta hemezortzi urte geroago, *Orotarikoaren* lehen liburukia oso aurreratua zegoen arren eta Sarasolaren *Hautalanoerakoaren* hirugarren liburukia (guztira bederatzi izango ziren) argitaratzeaz bazen ere, 1982an marrazturiko asmoen fruituak guztiz umotu gabe zeuden.

Izan ere, azken lau urteotan batzuek eta bestek lan handia egin bazuten ere, aipatu hiru aurrelanak amaitzeke zeuden orduan⁹⁹: a) *Orotariko Euskal Hiztegia* jada hala izendatua zenaren lehen liburukia argitara gabe zegoen artean; 2) 1968az geroztik asmatu edo erabili diren hitz berrien bilketa sistematikoa (*EEBS* siglez izendatu berria zena¹⁰⁰) uste baino korapilatsuago suertatzen ari zen eta 1985eko udazkena arte ez zen benetan abian jarri¹⁰¹; 3) Lexikologia Irizpideen Finkapenerako sail izenekoaren lana nahi baino polikiago zihoan, 1985 arte ez baitzen sail hori behar bezala osatu eta antolatu¹⁰².

1991ko Hiztegigintza Jardunaldiak arte itxaron beharko da Euskaltzaindiaren hiztegi batuaren lehen lan espezifikoa ikusten hasteko. Alta, 1986-1991 epealdia ez zen fruitu gabea izan. 1987az geroztik, urtero-

-urtero, *Orotariko Euskal Hiztegiaren* liburuki bana argitara zen. *Hautal-
lanerako Euskal Hiztegi* arauemailearen beste hiru liburuki publikatu
ziren, eta, horrenbestez, Sarasolaren hiztegi normatiboaren bi herenak
argitaratuak ziren jada.

Lexikologia Batzordea ere bere ikerlan eta irizpide nagusiak plazaratuz
joan zen. Eta Euskaltzaindiak, 1991ko apirilean, agiri garrantzitsu bat
ezagutzera eman zuen euskal hitzei buruz, 1959ko sonatuaren hurrena,
bertan adierazpen esanguratsuak egin zituela.

Adierazpen hori hartu zuen oinarri Hiztegi gintza Batzordeak hiztegi
batua egiteari ekitean. Duen berebiziko garrantziagatik, haren mamia
laburbilduko dugu hemen.

3. Euskaltzaindiaren bigarren agiria euskal hitzei buruz (1991)¹⁰³

Hasieratik oroitarazten du Akademiak bere lehen agiriaren helburu
nagusia: *garbizalekeriaren* gaitzaren kontra sendabide eraginkor bat
ematea, purismoa baitzen “garai hartan euskarak zituen gaitzetatik bat”.
Erremedioa emankorra izan zela aitortzen du.

Baina orduko gaitza sendatu ondoren, beste bat sortu da aspaldion, hura
bezain arriskutsua eta hedatua: *mordoilokeria*, garbizalekeriaren kon-
trakoa, hain zuzen ere. Horretaz sendatzeko irizpide eta jarraibiderik
onena 1959 agirian ezarritako *Oinarri legea* da, hitzez hitz gogorarazten
duena, letra etzanaz nabarmenaraziz:

“Hiztegi sailean ez da bidezko hitz asmatuetara jotzea ezin bestez baizik,
eta orduan ere hitzen erabidean hizkuntzaren joerak gordeaz. Hori hiztegiari
gagozkiola. Gramatikaren barrutian, ordea, ez da sekula zilegi asmatzen
ibiltzea edo hizkuntza aldatu nahi izatea”.

Euskaltzaindiak gogorarazten du orduan emandako definizioa euskal
hitzei buruz: “*Euskal hitzak dira euskara bizian sustraituak daudenak*”.
Eta definizio hori indarrean dagoela jakinarazten du, ezezko eran formu-
latuz oraingoan: “*Euskara bizian sustraituak ez daudenak ez dira euskal
hitzak*, sustraitzen ez diren bitartean bederen”¹⁰⁴.

Jarraian hitz baten sustraiei antzemateko hiru irizpide proposatzen ditu:
1) hitzaren hedadura; 2) hitzaren antzinatasuna; 3) hitzaren erabile-
ra idazle zaharretan. Eta 1959an esan gabe zihoan zehaztasuna erantsi
beharrean aurkitzen da: “erdaratikako hitzak izan daitezke noski euskal
hitzak, baina horrek ez du esan nahi erdaratikako hitz guztiak euskal
hitz direnik”. Hori zehaztu beharrak sendatu nahi den gaitzaren neurri
handia ematen du.

Euskal hitzak ez direnen zerrenda luzea emateari alferrikako iritzirik,
adibide argigarriotara mugatzen da: *muntra*, *butxet*, *rehen*, *amoti-
natu*, *frakaso*, *sorteo*, *arratxa*, *erreskatatu*, *entzerrona*. Areago, dio
Akademiak, “ez dira erabat euskal hitzak gaztelera edo frantsesa jakin
gabe euskaldun batek ezin adi ditzakeenak”.

Gaitza hain da handia, non irudi lukeen “zenbait telekomunikabidetako zenbait programa aditzeko bortxatzen ditugula Iparraldeko euskaldunak lehenik gaztelera ikastera eta Hegoaldekoak frantsesa”¹⁰⁵. Euskaltzaindiak argi uzten du hitz berrien eratzea ez dagokiola, baina prest dagoela egiteko horretan laguntzeko.

Azkenik, bere mezua gaizki aditurik gerta ez dadin, kultura eta zibiliza-zioko hitzak, “mailegatuak izanik ere”, ontzat hartzen dituela dio, “hala nola *politika, teknika, literatura, liturgia, metro, kilometro*, eta abar”, 1959ko agiriaren amaieran emanak zituen adibide berak erabiliz.

Bigarren agiri hau erreferentzia-puntu nagusi izango dute *Hiztegi Batuaren* egile guztiek, erraz irudika daitekeenez.

4. Ibon Sarasolaren
Euskal Hiztegia
(1984-2007)

Gorago aurreratu dugunez, 1977an Sarasolak bere *Euskal Hiztegi Arauemailea* zeritzanaren lehen moldaera prestatu zuen. Haren asmoa zen Mitxelena prestatzen ari zen hiztegi orokorraren irakurketa norma-tiboa egiten hastea, Euskaltzaindiak bere egunean egin beharko lukeen hiztegi baturako oinarritzko materiala izan zedin. Horretarako, eus-kaltzain guztiei eta hainbat euskalari eta idazleri helarazi zizkien hiz-tegia osatzen zuten lau liburukiak. Haien iritziak sistematikoki jaso eta arretaz aztertuz joan zen, Mitxelena akuilari eta gidari zuela.

Lehen prestaera burutu ondoren, 800.000 testu-hitzetan oinarrituriko lehen *Maiztasun Hiztegia* egin zuen, hiztegi orokorretik egin beharreko hitz aukeraketa ezinbestekoa ahalik eta zentzuzkoen gerta zedin. Ordu arte ez zen inoiz horrelako lanik egin euskalgintzan.

Aurrelan horietan oinarriturik eta Mitxelenak urte luzez bildutako gaiez sistematikoki baliaturik, hiztegi normatiboaren bigarren prestaerari ekin zion. 1984an argitara eman zuen arnas luzeko obraren lehen liburukia, *Hauta-lanerako Euskal Hiztegia* titulupean eta Mitxelenaren aurkez-pen mamitsu batekin. Ia urtero liburuki bana plazaratuz, 1994an bede-ratzigarren eta azken liburukia argitara eman zuen. Urtebete geroago, liburu mardul bakar batean bildu eta publikatu zuen *Euskal Hiztegia* tituluarekin, hainbat hitzen ortografia eta forma Euskaltzaindiaren azken arauen arabera zuzenduz. 2007an, *Euskal Hiztegiaren* hirugarren eta behin betiko idatzaldiaren edizio nabarmen aberastua eta eguneratua plazaratu zuen. Horretarako, zientzia- eta teknika-adigai berri ugari sartu zituen eta Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuan jada onartutako hitz-formen berri esplizituki eman zuen.

Sarasolak beti aitortu du Mitxelenarekin duen zorra. *Hauta-lane-rakoaren* “Sarrera”n argiro dio Mitxelena “laguntzaile edo lankide baino areago, egile-kide gertatu dela”¹⁰⁶. Areago, aitortu egiten du Mitxelenaren hogeita hamar urteko hiztegi-lanaz hainbeste baliatu dela “non esan daitekeen haren irakurraldi bat –batasunaren ikuspegitikako irakurraldi bat– besterik ez dela honako hau”¹⁰⁷.

Hitzen formen hautaketa “bion artean” egin dutela zehazten du gainera. *Orotarikoaren* euskarazko aurkezpenean ere aitorten bera egingo du, esanez *Hauta-lanerakoari* “Mitxelenak bere hiztegiari adina ordu edo gehiago eskaini” zizkiola azken urteetan¹⁰⁸.

Hona hemen, laburbildurik, *Euskal Hiztegiaren* ezaugarri nagusiak:

- Euskara-euskara hiztegia da, hots, euskara metahizkuntzat hartzen duen lehen hiztegi handia da¹⁰⁹. Definizio eta argibide guztiak euskaraz, eta euskara hutsez, ematen dira. Botanika- eta zoologia-adigaiak euskarazko definizioaz gainera latinezko izen zientifikoa daramate.
- Hitz guztien kategoria gramatikalak adierazten ditu. Aditzak direnean erregimena ere zehazten da, era normatiboan. Hitzaren definizioaren ondoren, beharrezko denean, hitzaren erregistro-maila edo/eta erabilpen-eremua seinalatzen du, bai eta gramatika aldetik jakin beharrekoak hitza zuzen eta egokiro erabili ahal izateko. Horrelako azalpen sistematikoak ez dira orain arte inoiz eman. Ondoren literatura hobereenetik aukeratutako adibide-sorta bat eskaintzen da, hitzaren adiera eta erabilpen ezberdinak nola adieraz daitezkeen arretaz ikusi ahal izateko. Adibideok dira, zalantzarik gabe, Sarasolaren hiztegiaren alderdirik aberatsena eta bide-erakusleena.
- Hitz bakoitzaren lehen testigantza-urtea eskaintzen du; lehen lekukotasuna hiztegi batean ageri bada, hiztegi ez den beste testu bateko lehen data ere eskaintzen da, zenbaitetan jatorrizkoan azaldutako hitz-aldaera adierazgarria zehaztuz. Ezaugarri hau balio handikoa da, erabiltzaileari aukera ematen baitio hitzaren antzinasunaz eta lekukotasunaren balioaz jabetzeko¹¹⁰. Gure hizkuntzaren tradizio idatziaren laburra kontuan izanik, berebiziko erreferentzia da hitzen lehen lekukotasunen datak eta autoreak jakitea. Zoritzarrez, *Hiztegi Batuak*, beste herrialdeetako Akademien hiztegi normatiboen antzera, ez du inolako datarik adieraziko.
- Hiztegiko adigai tekniko eta zientifiko berriak (1970ez gerozkoak, oro har) alde bat utzita (10.000tik gora), 30.000 hitz inguru dira *Orotariko Euskal Hiztegitik* hartu direnak. *Orotarikoak* 125.000 hitz biltzen dituenez, esan daiteke Sarasolarenak Mitxelenaren hiztegi orokorraren % 25 inguru jaso duela euskara baturako. Datu honek hiztegi orokorretik hiztegi batura dagoen aldearen neurria ematen digu, soilketa- eta murrizketa-lana zenbaterainokoa den erakusten diguna.

5. *Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuaren metodologia eta edukia (1991-2012)*

1991ko azaroaren 11n, Laurgainen, Hiztegegintza Jardunaldietan, Euskaltzaindiak Hiztegegintzaren Batzordearen eskuetan utzi zuen “etorkizunean egin beharreko Hiztegi Arauemaieranzko bidean prestatu nahi den hitz-zerrenda lantzeko eta onesteko prozedura proposatzea”.

Ordu arte eginiko aurrelanak eta urrats erabakigarriak inola ere ahantzi gabe, esan daiteke data harrezkero hasi zela Euskaltzaindiaren Hiztegi

Batuaren langintza espezifikoa abian jartzen. Ordurako, *Orotariko Euskal Hiztegiaren* bosgarren alea oso aurreratua zegoen, *Hautal- lanerako Euskal Hiztegiaren* bi herenak argitaratuak zeuden, *EEBS*-ren lehen fasea amaitzean zen, eta lexikologia-irizpideen finkapena ia burutua zegoen. Oinarriak, beraz, finkatuak zeuden. *Hiztegi Batuaren* txanda zen, ezin geroratzkoa.

Horretarako, Hiztegiak Batzordeak txosten mamitsu bat aurkeztu zuen Saran urte hondarrean, “Hiztegi Batua. Lanketa- eta onespenezkoak” izenekoa¹¹¹. Txostenak argiro aitortzen zuen hasieratik “nerabezaroko duda-muda eta zalantzetan murgildurik bezala” zebilela euskal hiztegia, “*alor* ala *ar*lo, *itsasontzi* ala *itsasuntzi*, *i*hardun ala *jardun*, *argitarapen* ala *argitalpen*, *analisa*tu ala *analiza*tu, *azka*zal, (*h*)atza*zal* ala *azka*zal, *iruzkin* ala *irazkin*, *ebaluaketa* ala *ebaluazio*, etab.” nola idatzi ez genekiela¹¹². Haatik, jarraian aitortzen zuen inoiz baino egoera hobean zeudela hiztegi batua lantzeko, “inoiz izan ez dugun informazioa dugulako gaur egun literatur tradizioaz (OEH) eta erabilera garaikideaz (EEBS)”, batasunaren oinarria “batez ere iturri horietan bilatu” behar zela kontuan izanik [1136 orr.].

Hiztegi Batuaren langintzaren lehen helburua hitz-zerrenda oparo bat prestatzea zen, baturako formak aukeratuz eta hobetsiz, euskalkien arteko “desberdintasunak ezabatu” nahian [1136 orr.]. Bigarren fase baterako uzten zen hautatutako hitzen definizioa, kategoria gramatikala(k), adiera ezberdin posibleak, ohar arauemaileak, esapide ezagunak eta adibide eredugarriak lantzea, nahiz eta hainbat kasutan elementu horietako batzuk aurreikusi beharko ziren hitz-zerrenda ego-kiro osatzeko.

5.1. Hitz-zerrendaren edukia, tamaina eta burutzeko epeak

- Hitz-zerrendak “euskal hitz-althorren muina... osatzen duten elementu lexikalak” bildu behar lituzke, hots, atzoko eta gaurko hiztegi-oinarria osatzen dutenak [1136 orr.]. Esan gabe adierazten da hiztegi-oinarri hori OEH-n bilatu behar dela ororen gainetik.
- Zerrendak “*EESB*-ko corpusean aintzakotzat hartzeko presentzia” duten elementu lexikalak ere bildu behar lituzke, aurreko multzoan jada jasoak ez badaude [1136 orr.].
- Hitz horiek guztiak hiru eratakoak izan daitezke, baturako forma aukeratze aldera: a) forma batua aukeratzeko “inolako arazorik ez duten hitzak”; adibidez: *abendu*, *aberats*, *abere*, *abiatu*, *adar*, *adiskide*, etab.; b) “azken orduko irentsi gabeko maileguak”, horiek ere arazorik sortzen ez dutenak, hala nola *software*, *leasing*, *windsurf*, *rap*, etab.; c) zalantzak sortzen dituzten hitz-formak, gorago aipatu ditugun modukoak: *itsasontzi* / *itsasuntzi*; *i*hardun / *jardun*, *argitarapen* / *argitalpen*, etab [1136 orr.].
- Oro har, “bizirik dauden hitz guztiak”, ahoz zein izkribuz, aintzat hartzekoak dira eta, beraz, aztertu beharrekoak.

- Zerrendak, hasiera batean, 25.000 hitz inguru biltzea da helburu. Baina argi dago gero askoz ugariago izan behar lukeela, zeren hiztegiaren helburua erabiltzaileari noranahiko argitasuna eta erabilgarritasuna eskaintzea baita, eta “bizpahiru aldiz erantzunik gabe uzten badu, bereak egin du(ela)” esan daiteke. Euskal hiztegi aipagarrien lexiko-kopuruaren eboluzioa zehazten da argigarri gisa. 40.000 hitzetik gorakoa izan beharko duela iradokitzen da [1137 orr.]. Hitz batez, hiztegi batuak hiritartua, modernoa eta noranahikoa izan behar du, erabiltzailea aseko duena. Hartara, gorago aipatu hitz motez gainera, azken urteotan beharrak sortutako hitz berriak eta horien modukoak bilduko ditu: *ikus-entzunezko, dinamizatzaile, erakundetu, gainegitura, azpibatzerde, azpimarragarri, eskubaloi, aldagela, irakurgailu, eskiatzaile*, eta abar [1137-1138 orr.].
- 1992-1996 epealdiko kronograma bat proposatzen da: a) 1993 udazken hasierarako EEBS lehen faseko lematizazioa bukatu eta 1988-1991 bitarteko corpus-zatia eskuratze, huste eta lematizazioa; b) 1992ko uda bitartean bost urteko hiztegi-langintza horretarako prestakuntza; c) 1993ko kongresurako lehen zerrendaren prestakuntza eta aurkezpena; d) aipatu kongresutik aurrera 25.000 hitzeko zerrenda osatzeko lanak [1138 orr.].

5.2. Hiztegi Batuaren
batzordearen osaera
eta lan-prozedura

- Batzordea bederatzi kide iraunkorrek osatzea proposatzen da¹¹³:
 - Ibon Sarasola (Hiztegi-gintza-batzordearen burua)
 - Iñaki Seguro (OEH azpibatzerdearen arduraduna)
 - Mikel Zalbide (Hiztegi-gintza-batzordearen idazkaria)
 - Miren Azkarate (LEF batzordearen burua)
 - Xabier Kintana (euskaltzain oso eta eskarmentu handiko hiztegi-gilea)
 - Luis Baraiazarra (“Bostak Bat” hiztegi-gile-taldekoa)
 - UZEIko lantaldeko bi lagun
 - Iparraldeko hiztegia ongi ezagutzen duen aditu bat

Bederatzi partaide horiez gain, “idatzizko oharrak aurkeztera azaldu nahi duten euskaltzain osoek” ere izango dute lekua batzordean [1140 orr.].

- Lau instantzietatik igorri eta jasoko dira iritziak eta oharrak: a) Euskaltzaindiaren osoko batzarretik; b) Hiztegiaren batzordetik; c) UZEIko lantaldetik; d) Iritzi-emailetatik (idazle, irakasle, itzultzaile eta abarretarik) [1139 orr.].
- UZEIko lantaldeak, “nagusi-nagusiki OEHko eta EEBSko corpuse-tan oinarrituz, hitz-zerrendak eta –beharrezkoa litzatekeen kasuetan– txostenak prestatuko lituzke Hiztegi batuaren batzordeari aurkezteko”. Orobat, lantalde honek iritzi-emaileen “beren eguneroko praktikan izaten dituzten kezken eta hutsuneen berri” izango luke [1139 orr.].

- Hiztegiaren batzordea euskaltzainen (banaka zein batzarrean), UZEIko lantaldearen eta iritzi-emaileen iritziak eskatu, jaso eta banan-banan aztertuko lituzke, Euskaltzaindiaren Osoko Batzarraren esku azken hitza utzirik [1139 orr.].
- Instantzia horien hierarkia eta ardura nagusiak kontuan izanik, UZEIko lantaldeari legokioke Hiztegiaren batzordeari “hitz-zerrendak eta hauetan arazoak dituzten hitzei buruzko txostenak” aurkeztea. Txostenotan, ortografia-formaz gainera, eta beharrezkoa denean, “beste hainbat argibide emango da aditz-erregimenaz, kategoria gramatikalaz, euskalki arteko banaketaz, erregistroaz” eta abarrez. Halaber, kontuan izango dira “aditz-esapideak eta baita hitz elkartuak eta bustiduradun formak lexikalizaturik daudenean” [1140 or.].

5.3. Txostenak
prestatzeko irizpideak,
haien egitura eta
eztabaida
5.3.1. Tradizio ezaguna
duten hitzak

- Auzigai diratekeen formen inguruko informazio zehatza eta formalizatua azaldu behar du txosten bakoitzak eta horretarako honako iturri nagusien berri sintetikoa emango du: a) OEH eta EEBS corpusak; b) tradizio lexikografikotik hainbat datu: OEH, DRA, Azkue, Lhande, P. Mugika, *Hiztegia 2000*, *Euskararako Hiztegia*, *Hautu-lanerako Euskal Hiztegia*, Junes Casenave-rena, etab.; c) azalpen teoriko sistematiakoak: FLV, EGLU, etab.; d) erabilereku jakinetako hiztegi arautuak; e) bestelako informazio osagarriak: hustuketa partzialak, ikerketa puntualak, eta abar [1141 orr.].
- Lexikoaren batasunerako erreferentzia nagusia *batez besteko erabilera* izango da, idatzizkoa kasu honetan [1141 orr.]¹⁴,
- Batez besteko erabilera lau irizpide nagusien arabera neurtuko da, “baina beti ere irizpide guztien multzoa kontuan hartuz” [1142 orr.]:
 - 1 Forma bakoitzaren *maiztasuna*: parametro honen abantaila kuantitatibo izatea da, “baina inola ere ez da erori behar... beste irizpideak ahazteko arriskuan” [1142 orr.].
 - 2 Arazoen tipologia: forma baten paradigma bati begirako erregularitasuna erakusten badu, “kontuan hartzeko arrazoia izango da, forma irregularren kaltetan” [1142 orr.].
 - 3 “Hizkuntza-erabilerearen ikuspegi soziala”: euskalkien arteko erabilera-ezberdintasunak, ikuspegi sinkroniko eta diakronikoa, hizkuntza-mailen arabera, alorren arabera (eskola-eremua, ekonomia-arloa, zuzenbide-alorra, etab.) [1142 orr.].
 - 4 Erabilera ez ezik, oso aintzat hartzekoak dira “tradizio lexikografikoa eta teorizazio-lanak” [1142 orr.].
- Irizpideok kontuan izanik eta hitz bakoitzaren forma ezberdinen azalpen diakroniko sinoptiko batez lagundurik, forma lehiakideen arteko auzia honako ebazpide edo parametro hauen arabera ebartziko da:

- 1 Forma batek “erabateko nagusitasuna agertzen badu beti eta edonon” orduan ez dago arazorik, “huraxe da forma batua”[1143 orr.].
- 2 Forma batek nagusitasuna izan badu luzaroan, baina XX. menderako beste forma bat nagusitu bazaio, orduan azken hau onartuko da euskara batuan. Ordezkapena 1968. urtean baino lehenago gertatu bada, orduan ere ordezkapena onar daiteke. Baina berriagoa (1968. urteaz gerozkoa) bada, “tradiziorik handiena duen forma indartzera joko da” [1143 orr.].
- 3 Bi edo hiru formek antzeko tradizio-indarra erakutsi badute eta indar horrek gaur artetsu iraun badu, beste faktore batzuei begiratuko zaie: “ertzetako euskalkiak bat ez datozenean, erdikoei pisu handiagoa emango zaie”; halaber, formaren erregulartasuna kontuan izango da eta “erabilera-maila markatueta erabiltzen diren formak baztertzera joko da” [1143 orr.].
- 4 Oraino indarrean dagoen tradizio luzeko forma baten ondoan beste bat indartzen ari bada, “zaharrenari aitortuko zaio nagusitasuna berriagoaren kaltetan”, baldin eta aurreko puntuko moduko “oso arrazoi pisuzkoek besterik eskatzen ez badute” [1143 orr.].
- 5 Forma lehiakideak aztertzerakoan oso gogoan izango dira bakoitzaren forma senideak eta “eduki semantikoak formarekin batzuetan izaten dituen erlazioa” [1143 orr.].

5.3.2. Tradiziorik gabeko hitz berriak eta mailegu berriak

Euskaltzaindiak euskal hitzei buruz plazaratutako bigarren agiria (1991koa) hartuko da gidaritzat¹¹⁵. Adierazpen horretan hiru irizpide nagusi irakasten dizkigu Akademiak hitz bat euskal hitzatz hartu ahal izateko: a) “hitzaren antzinatasuna”; b) “hitzaren erabilera idazle zaharretan”; c) “hitzaren hedadura”. Hiztegi batuaren batzordeak zuzen dioenez, lehenengo bi irizpideak hitz zaharrei dagozkie, eta, beraz, “hirugarrenak izan behar du erabakiorra” aipatu ditugun hitz eta mailegu berriei dagokienez. Hau da, *hitzaren hedadura* izango da irizpide nagusia ezinbestean erabiltzen diren hitz eta mailegu berrientzat [1143 orr.].

Hitz baten hedadura neurtzeko bi parametroz baliatuko dira batzordekoak:

- a Hitzak “euskara idatzian duen agerpen-maiztasuna neurtu behar da” aurrenik, eta neurgailurik aproposena *EEBS* corpusa da, berau hartarako pentsatu eta burutu baitzen. Osagarri gisa, beste informazio-iturri batzuk ere erabil daitezke: testuetarik eginiko beste hustuketak, azkenaldion gehien erabiltzen diren hiztegiak, “sektoreen araberrako premien eta erabileren lekuko diren materialak”, eta abar [1144 orr.].
- b Gaztelaniaren eta frantsesaren mendeko garen aldetik, bereziki erabileremu berriotan, ahal dela “forma-bikoiztasunaren korapiloa” saihestu beharko da, “forma nazioarteko(en)a” hobetsiz. Hau da, gaztelaniak eta frantsesak adigai bat adierazteko zeinek bere forma

propioa dutenean, ahaleginak egingo dira forma bakarra hobesteko, nazioarteko usadiotik gertuena dena.

Formaren osaera ere oso aintzat hartuko da, eta, horretarako, LEF batzordeak eginiko azterketak kontuan hartuko dira, “forma jator eta paradigmari ongi egokituak indartzeko, noizean behingo ‘iratxoan’ kaltean” [1144 orr.].

5.4. Hiztegi Batuaren lau idatzaldiak

Gorago aipaturiko aurrelanetan oinarriturik eta arestian azaldutako metodologia zorrotzari jarraikiz, 2000. urtean Euskaltzaindiak, *Euskera* aldizkarian, ezagutzera eman zuen *Hiztegi Batuaren* lehen moldaera. 20.000 hitz inguruko zerrenda batua eskaintzen zuen. 2008an bigarren prestaera eman zuen argitara, nabarmenki handitua: 27.786 sarrera eta 4.165 azpisarrera zituen oraingoan. Iaz hirugarren argitalpena plazaratu zuen, nabariki eguneratua, 36.016 sarrera eta 6.052 azpisarrera zituela. Heldu den urtean argitarako den lehen edizio osotuak lehen bi itzulietako 20.000 hitzen berri zehatzik (kategoria gramatikala, definizioa, erabilerrari buruzko oharrak, adiera posibleak, esapide zuzenak, ereduak adibideak, etab.) emango du¹¹⁶. Hurrengo argitalpenetan hitzen kopurua handituz joango da, etengabe handitu eta findu ere.

Orain arteko lehen hiru argitaraldiek “Argibideak” izeneko sarrera bera daramate¹¹⁷. Lehenik forma lehiakideen artean egokiena aukeratzeko bi irizpide nagusien berri ematen du: a) tradizio idatziko eta egungo erabilerari, egun *Orotariko Euskal Hiztegiari* eta *EEBS*-ri esker ongi eta zuzen ezagut daitezkeenak; b) euskaldun guztiok batzen gaituzten formak hobestea; horretarako nazioarteko formen alde egin da, eta, horrelakorik ezean, “Iparraldeko eta Hegoaldekoentzat onargarri gertatzen direnei eman zaie lehentasuna” [10 orr.]¹¹⁸. Zenbait kasutan, forma bakarrera iristeko aukerarik ez zegoenean, forma lehiakideak eskaini dira, dagozkien argibideekin.

Ohar interesgarri bat eransten du jarraian hiztegiaren jasotzen ez diren hitzei buruz. Euskaltzaindiak dio “ez dituela oraingoz onartzen, baina ezta gaitzesten ere”. Haren ustez, hobe da oraingoz erabaki gabe utzi, “arinkeriaz jokatu baino” [10]. Eta argudio pisuzko batek darraio baieztapenari: erraza liteke berehala zirt edo zart egitea, “ez hain erraza, askotan, alde guztiei begiraturik etorkizunerako egokiena gerta daitekeena eskaintzea” [10].

Hitzen aldaerei buruz *Hiztegi Batuak* jakinarazten du Euskaltzaindiak aldaera bakar bat onartu duela ia beti. Batzuetan forma baztertua ematen da, baina izartxo batekin “eta e. [= erabil] ikurraren ondoan forma hobetsia adieraziz” (adibidez: “erropa* e. **arropa**”; “barri* e. **berri**”). Beste batzuetan, hitza bera baztertu da “haren ordezkoko bat erabili behar dela adieraziz” [10 orr.].

Hiztegi Batuak euskalki-marka bat ezarri die hainbat hitzi. Marka horri esker hitzaren erabilerreri nagusia erakusten zaio hiztegiaren

erabiltzaileari. Alta, Euskaltzaindiak ohartarazten du marka horiek ezartzeak ez duela inola ere esan nahi hitz horiek baztertu behar direnik; “aitzitik, euskalki-hitzok Hiztegi Batuan sartzeak adierazten du Euskaltzaindiak bultzatu egin nahi dituela idazleak horiek erabiltzera”, era horretan denon “ondare komuna” bihur ahal daitezten [11 orr.].

Hitz batzuek *h.* [= hobe] ikurra daramate. Bi multzo ezberdinetan bereiz daitezke. Batetik, euskalki marka daramatenak; horrelakoetan ikurra “Euskal Herri osoari begira idazten diren testuetako erabilerari soilik dagokio” eta, horrenbestez, hitz horiek egokiak izan daitezke beste testuinguru batean. Bestetik, euskalki markarik ez daramatenak, adibidez: “**zigarro** [...] 2. *Heg.* ‘zigarro txikia’ h. **zigarreta**” edo “**partidu** *Heg.* 1 h. **partida** [...]” bezalakoak. Hauei buruz Akademiak dio “ohartzen dela ez direla denak idazle guztiek egoera guztietan eta berehala onartzekoak” eta agian pausoka joan beharko dela [11 orr.].

Sarrera nagusien ondoren tradizio ezaguna duten forma eratorriak eta esapideak ere jaso dira azpisarrera bezala. Honetan berebiziko esfortzua egin du Euskaltzaindiak. Hirugarren argitalpenean azpisarreraren kopurua oso handia da: sarreren % 16,7 dira guztira, eta uste izatekoa da handiago izango dela behin betiko edizioan.

Hiztegi Batua, lehen hiru idatzaldietan, *ortografia-hiztegia* dugu bereziki. Baina besterik ere eskaintzen du: hitz guztien gramatika-kategoria, hitz askoren erabilera-maila (behe-mailakoa, lagunartekoa, goi-mailakoa, jaso, teknikoa...) hainbat hitzen sinonimoa eta antonimoa, hitz dezenteren adiera ezberdinak [12 orr.]. Adierak ezaugarritzeko, “definizio xumeez eta hitz adierazgarriez” baliatu da eta batzuetan komatxo artean ematen da hitzaren esanahia, hitz erabiliago bat eskainiz. Adibidez: “**betortz** ‘letagina’” ematen denean *betortz* hitzaren esanahia argitzeaz gainera, *letagin* hitza zabalagoa eta askotan egokiagoa dela adierazten da [13 orr.].

Euskaltzaindia datorren urterako ontzen ari den edizio osotuak, orain arte aipatutako ezaugarriez gainera, hitz guztien definizioak, erabilera zuzenari buruzko oharrak, dituzketen adiera ezberdinak, dagozkiekeen esapide ezagunak eta ereduzko adibideak eskainiko ditu, Sarasolaren *Euskal Hiztegiaren* antzera, nahiz eta, tamalez, hitzen lekukotasunei buruzko datarik ez den azalduko¹¹⁹.

Sarasolaren hiztegiaren eragina ukaezina izan da *Hiztegi Batua*ren taxueran eta egituraketan, besteak beste. Baina beste bi hiztegiak ere eragin nabarmenik izan dute, jakin eta egiaztatu ahal izan dugunez. *Elhuyar* taldearen *Euskal Hiztegi Modernoak*¹²⁰ eta *Euskara-euskara LUR Hiztegiak*¹²¹. Hiztegi horiei esker hitz tekniko eta zientifikoaren definizioek zehaztasunean eta ulergarritasunean irabazi dute. Adibideak ere, Sarasolarenean bezain ugariak izango ez diren arren, berebiziko arretaz eta artaz aukeratu dira eta esaera zahar anitz ageriko dira.

Ikusi dugunez, hamaika urte luze eta lau idatzaldi behar izan dira *Hiztegi Batuaren* lehen edizio osotua idatzai ahal izateko, haren ezinbesteko oinarri izan diren *Orotariko Euskal Hiztegia* eta *EEBS* corpusa osatzeko behar izan diren urte ugariak kontatu gabe. Baina, zorionez, Mitxelenaen hiztegi handiarekin gertatu bezala, euskaldunok luzaz luzetsi dugun *Hiztegi Batuak* aurki asebeteko gaitu alde bateko eta besteko euskaldun guztiok. Gure esker on betea merezi dute lan horretan alde edo moldez jardun duten guztiek, aitzindariak ahantzi gabe.

Oharrak

1. N. Landuchio: *Dictionarium Linguae Cantabrigiae* (1562), M. Agud eta K. Mitxelenaen edizioa. K. Mitxelenaen hitzaurrea (gaztelaniaz: 7-48 orr.). “Julio de Urquijo” Mintegiaren Argitarapenak, Donostia, 1958. Aipatu hitzaurrea K. Mitxelenaen *Sobre historia de la lengua vasca* bilduma-liburuan (2. liburukia, 762-782 orr.) irakur ere dai-teke oso-osorik. Ikus orobat, obra berean, “Noticias sobre la obra de N. Landucci (783-785 orr.).
2. Ibon Sarasola euskaltzainari esker Agud-Mitxelenaen edizioa erabiltzeko aukera izan dugu. Edizio horren arabera egin ditugu kalkuluak. Aipatu argitalpenean, 316-327 folioak ez dira agertzen: euskal ordainik ez dutelako, itxura guztien arabera. Izan ere, 315. folioaren ifrentzuko *satisfacción* hitzari *venir, ventero, venido...vezino* hitzek darraizkio Agud-Mitxelenaen edizioan, segidan *xaquima de bestia, xarama, xaraue...zumbido* ageri zaizkigula, alboan 328. jatorrizko folioaren erreferentziarekin.
3. Ik. K. Mitxelenaen *Introducción*, 17-18 orr.; *SHLV* II, 767 orr.
4. K. Mitxelenaen *Introducción*, 17-18 orr.; *SHLV* II, 768 orr.
5. *Enmaderamiento: maderajea*, 266. folioaren aurkian, eta *huso para hilar: ardasça*, 282. folioaren aurkian, ditugu C-ren azken eka-riak, Agud-Mitxelenaen edizioaren arabera.
6. Artikuluarekin ematen ditugu hitzak, Landucciren hiztegian datozen bezala.
7. *Ib.* 14 orr.; *SHLV* II, 765 orr.
8. K. Mitxelena, *Euskal idazlan guztiak* VII, 48 orr.
9. *Ib.* 49 orr.
10. *Ib.* 62 orr. Ikus orobat J. A. Lakarra: “Pouvreuren hiztegiez eta hiztegi-gintzaren historiaz”, in *ASJU*, XXIX-1, 3-52 orr.
11. *Ib.* 52 orr.
12. Patri Urkizuri zor diogu Urteren hiztegi amaitu gabearen lehen edizioa, edizio kritiko gainera. Patrizio URKIZU SARASUA: *Pierre d’Urteren hiztegia. Londres 1715*. Deustuko Unibertsitatea, Donostia, 1989 (2 liburuki). Lehenengo liburukian, Urteren garaia, idazlanak eta hiztegiaren nondik norakoak azaldu ondoren, latina-euskara hiztegiaren bihurkera bikain bezain baliagarria eskaintzen du, euskara-frantsesa-gaztelania-latina hiztegi bat osatuz, hain zuzen ere. Bigarren liburukian Urteren *Dictionarium Latino-Cantabricum*-en transkripzio zorrotza demaigu, 630 orrialde trinkotan. Urteren lanaren mardulaz jabetzeko, datu adierazgarri bat: *a-commotus* ondu zuen zatiak 2.457 orrialde hartzen ditu jatorrizko eskuizkribuan eta 10.000 bat euskal hitz ezberdin aipatzen ditu, I. Sarasolak eginiko kalkuluen arabera.
13. Era berean, eta Bidasoaz haraindian betiere, aipagarri dateke Larramendiren garaikide izan zen M. M. Harriet-en euskara-frantsesa / frantsesa-euskara hiztegi txiki interesgarria, 174lean argitara emana, Baionan, *Gramatica escuaraz eta francesez* izeneko ikasliburuan. Euskaratik frantseserako parteak 1600 sarrera-hitz inguru ditu (liburuko 268-323 orrialdeak) eta frantsesa-euskara zatiak 3.400 inguru. Itxura guztien arabera, Larramendik ez zuen haren berri izan.
14. Larramendik asmatutako hitzen pisua neurtzeko aski izan bitez Ibon Sarasolaren

- hitzok: “Bat nator J. A. Lakarrarekin “*Hirukoitzean gutxiena da asmatua eta gehiena herri-tik eta autoreetatik hartua*” dioenean, baina dena dela asko da nire ustez berak sortua”. *Larramendiren eraginaz eta*, in *ASJV XX-1* (1986), 207 orr. Lakarraren aipua artikulu honetatik aterea da: *Larramendiren hiztegi-gintzaren inguruan*, in *ASJV XIX-1* (1985).
15. I. Sarasolaren kalkuluen arabera.
 16. *Aip. lib.* 33 orr.
 17. Ik. Aita Agustin Kardaberaz: *Eusqueraren Berri Onac* obra klasikoaren edizio kritikoari aipatu autoreek eginiko Hitzaurrea, 11 orr. (Euskaltzaindia, Bilbo, 2004). Kardaberaz liburu irakurrita egiazta daiteke Larramendiren omena eta eragina nolakoak izan ziren.
 18. I. Sarasola: aip. art., *ASJV XX-1* (1986), 211-212 orr.
 19. Zerrendatxo hau osatzeko Ibon Sarasolaren *Euskal Hiztegi* ez ezik, Ines Pagolaren *Neologismos en los Juegos Florales* ikerlan bikainaz ere baliatu gara (in *ASJU XVIII-1*, 1984, 53-159 orr.). Parentesien artean Larramendiren hitz-forma ematen dugu. Orobat, I. Pagolaren *Neologismos en la obra de Sabino Arana* (Euskaltzaindia, IKER Saila 18, 2005, Donostia) doktoretza-tesia erabili dugu, bertan, besteak beste, aipamen oso interesgarriak baitatoz Larramendiri buruz.
 20. Azkuek bere hiztegi handian (s.v. *des-*) dioenez, Larramendiren hiztegian 843 hitz datoz *des-* aurrizkiak baliatuz.
 21. Hona hemen, adibidez, *kondaira* hitza nola aurkezten duen Azkuek bere hiztegi nagusian (s.v.): “Es una de las poquísimas palabras que nuestra menguada literatura ha conseguido vulgarizar, si no en el pueblo mismo, entre gentes de cierta cultura. Su formación, debida a Larramendi, arranca de una raíz extraña al idioma vasco”. Ezagunenez, *kondaira* hitza Larramendik euskal tradizio handiko *kondatu*-tik eratorri zuen, baina Azkuerentzat *kondatu* / *kontatu* (< khondu / kontu) ez zen euskal hitz jatorria, nahiz bere hiztegian jaso zuen, ezinbestean, *kondaira* bera bezala.
 22. Ik. I. Sarasola: *Euskal hiztegi-gintzaren historiako oharra*: *Añibarro, Iztueta eta Aizkibelen hiztegiez, eta Azkueren hiztegi-gintzaz*, *ASJV* (2002), 617-618 orr.
 23. *Ib.* 618 orr.
 24. Azkueren jatorrasun-irizpideak ikusteko eta, halaber, Larramendiren hiztegi hirukoitzaren ekarria nola epaitu eta soildu zuen argitzeko, aski dateke *des-* aurrizkiak Azkuek dioena arretaz irakurtzea. Bertan aurrizki horri Larramendik emana zion harrera zabala (*des-* aurrizkiak eraturiko 843 hitz ageri dira haren hiztegi hirukoitzean!) salatzen du lekeitiarrak, eta horrela eraturiko 29 hitz soilik jasotzen ditu, gehienek galdera-ikurra (bat edo bi) daramatela, honako hauek bezala: *desaldu*, *desbardin*, *desegin*, *desenkusa*, *desidu*, *deskarzel*, *deskeila*, *despiska*, *destaiña*, *destaiu*, *destarki*, *destenore*, *destorbu*. Ohar horretan, Azkuek bere helburu nagusia azaltzen digu: “Como esta obra no tiene otro objeto que fotografiar en toda la fidelidad posible el lenguaje del pueblo, no ha podido acoger lo que éste no ha sancionado, a pesar del gran respeto que a su autor le merece el ilustre Larramendi”. Guztiarekin ere, batzuetan Larramendirekin duen zorra aitortzen du; adibidez, *kondaira* hitza jasotzen du bere hiztegian Larramendik sortua dela esplizitoki esanez.
 25. *Euskal hiztegi-gintzaren historiako oharra*...: 623 orr.
 26. Argitaragabeko lan horien berri aski zehatza *Diccionario Auñamendi español-vasco*-ren egileek egiten dute, 1965ean publikatu zuten lehen liburukiaren hitzaurrean.
 27. Hiztegi honek 360 orrialde ditu, 146 *vasco-español* zatiak eta 202 *español-vasco* izenekoak.
 28. *Euskal hiztegi-gintzaren historiako oharra*...: 623 orr.
 29. Ikus bereziki Azkueren “Observaciones acerca de ‘Euskaltzaindiari’ de Altube’tar Seber”, in *Euskera*, 1935, 144-149 orr. Bertan “prestatzen ari garen Gaztelania-Euskara Hiztegia”z mintzatzen zaigu, eta artikulua mamiak hiztegi hori Euskaltzaindiaren izenean eta hainbat euskaltzainen artean egiten ari zirela adierazten du.
 30. Ik. Euskaltzaindiaren *Arautegia*, 1. art., c.

31. Azkueri zor diogu *Morfologia Vasca* izeneko euskal gramatika bikaina, 1923an hiru liburukitan argitaratua (in *Euskera* aldizkaria, 1923 IV, V, VI), hamarkadetan eragin handia izan zuena eta oraino ere aintzakotzat hartzekoa, puntu eztabaidagarriak gorabehera. Hogeita hamabi urte lehenago, 1891n, *Euskal-Izkindea. Gramática Eúskara* deritzana argitaratua zuen jada, Bilbon.
32. 1902an, Hendaiaiko Ortografiatzko Kongresuan, ortografia-eredu berritzaile bat proposatu ondoren, 1905ean “Observaciones sobre las condiciones general que debe reunir un Diccionario de la Lengua Euzkera” (in *Euzkadi* III 9-16 orr.; *Obras Completas*, 2303-2309 orr.) idazlanean adierazten bide du ongienik bere iritzia euskal hitzei buruz: “La integridad de un Diccionario comprende: a) la *exclusión absoluta* de los vocablos *alienígenas* (...) porque el Diccionario del Euzkera ha de serlo de sus voces, y no son suyas las alienígenas, y porque el Euzkera no necesita aceptar vocablos exóticos, como otras lenguas, pues tiene suficiente riqueza en la composición y suficientes y bellas notas derivativas para expresar los más complicados como los más simples conceptos de la mente” (10 orr. / 2304 orr.; letra etzanak jatorrizko testuarenak dira).
33. Aranaren neologismoen eta berauen irizpideen inbentariarik osoena eta dokumentatuen Ines Lasak egin du: *Neologismos en la obra de Sabino Arana*, Euskaltzaindia, IKER saila, Bilbo, 2005. Ikerlana 1980an burutua zen jada. Aranak proposatu eta/edo erabilitako neologismo guztiak (besterengandik hartutakoak barne) alfabetikoki bilduak ageri dira, bakoitzarekiko erreferentzia eta aipu ugari dakartzala. Ikerlan hau erabakigarria izan da hiztegi gintzan eta, Ibon Sarasolak obraren atarian (*Irakurle euskaldunari* izeneko) aitortu duen bezala, *Orotariko Euskal Hiztegian* jardun dutenek ongi ezagutzen dute sistematikoki erabili dutelako beren lanean (XI. or.).
34. Ikus S. Altube: “Erderatiko-itzak, itz-barriak eta antxiña-itzak”, in *Euskera* 2, 1920, 44-54 orr., eta R. M^a Azkue: “*Erderatiko itzak, itz sorberriak eta beinolako hitzak*”, in *Euskera* 2, 1920, 54-62 orr. Ikus orobat, Altubek, Euskaltzaindiaren eskariz, Eusko Ikaskuntzaren 1922ko Kongresurako eginiko txosten mardula gai berari buruz: in *III Congreso de Estudios Vascos*, Gernika, 1923, 78-93 orr.
35. Txostenaren orrialdea adierazten dugu. Ik. *De Sintaxis euskérica* liburua, 77 orr.
36. Altuberen hitzok gerok euskaratu ditugu.
37. Itzulpena gurea da.
38. Altubek parentesi artean ematen duen gaztelaniazko esanahia euskaratzea hobetsi dugu, gure idazlanaren metahizkuntza euskara denez gero, egilearen azalpenaren zehaztasuna ezertan kaltetu gabe horratik. Orobat egingo dugu aurrerantzean.
39. in *Euskera* 2, 1920, 54-62 orr.
40. Irakurketa errazte aldera, euskara batuan aldatu ditugu Azkueren hitzak. Gauza bera egingo dugu aurrerantzean.
41. in *III Congreso de Estudios Vascos*, Gernika, 1923, 78-93 orr.
42. 87-88 orr. Ik. orobat Villasante: *Euskararen auziaz*, 234-235 orr. 1968an onartu ez zen Altuberen arau bakarra, seigarrena, *ill /iñ* bustidura adierazten duen idazkera proposatzen duena, luzaroan nagusitu zen mugaz honaindiko idazle ia guztiengan, Mitxelena barne. Arantzazun, batasunaren izenean, Iparraldeko tradizioziko sendoena hobetsi zen, zuzen hobetsi ere.
43. *Euskaltzaindiari*, in *Euskera*, 1933, 263-265 orr. Titulua izan ezik proposamen osoa gaztelaniaz idatzita dator.
44. Aipamen honetarako eta, oro har, euskara idatziaren batasunaren historia eta eginkizunerako, ikus *Euskararen auziaz* izeneko Villasanteren liburu bikaina bezain ahantzia edo gutxietsia. Arantzazuko Frantziskotarren edizioa, Luis Eleizalde saila, 9, 232 orr.
45. Itzulpena gurea da.
46. *Euskaltzaindiari*, in *Euskera*, 1933, 264-265 orr.
47. *Observaciones acerca de ‘Euskaltzaindiari’ de Altube’ tar Seber*: in *Euskera*, 1935, 144-149 orr. Testua 1932ko otsailaren 24ko datarekin sinatu zuen Azkuek.

48. 145 orr. Itzulpena gurea da.
49. 145 orr. Itzulpena gurea da.
50. Villasante ere iritzi horretakoa dateke. Hauxe diosku hitzez hitz *Euskararen auziaz* liburu mamitsuan: “Gerra aurreko garaian Euskaltzaindia hiztegi bat egiten ari zen. Oker ez banaiz, Erdal-Euskal hiztegia zen”. 232 orr. Azkuek aipatzen duen hiztegia eta Villasantek dioena bat eta bera direla ondoriozta daiteke, huts egiteko beldurrik gabe.
51. Aipatu artikulua, 149 orr.
52. Ik. *Euskera*, 1959, 214-215 orr. euskarazko testurako.
53. Jatorrizkoaren ortografia errespetatu dugu irakurlea hobeki jabe dadin zein eratan, aldaerak eta guzti, izkiriartzen zituen hitzok Euskaltzaindiak aldi hartan, eta, ondorioz, egungo ortografia batuarekin hobeto alderatu ahal izateko.
54. Ik. Koldo Mitxelenaren *Orotariko Euskal Hiztegiaren* lehen liburukiari paraturiko “Koldo Mitxelenari” izeneko eskaintza, VII. orr. Bestalde, Mitxelenaren hartarakotasunaz jabetzeko, aski da jakitea Euskal Herriak inoiz izan duen gizon prestatuena eta jakintsuena izan dela hizkuntzalaritza arloan, haren obra akademiko eta literarioa lekuko. Lehen idazlan nagusien artean honakoak bide dira aipagarrienak gure gaiari dagokionez: *Fonética Histórica Vasca* (1957), Manuel Agudekin batera Landucciren *Diccionario Castellano-Vasco* eskuizkribuaren lehen edizioa (1958, edizio kritikoa gainera), *Historia de la literatura vasca* (1960), *Textos Arcaicos Vascos* (1964), *Estudio sobre las fuentes del Diccionario de Azkue* (1965).
55. 1983an estudio horren edizio berri bat plaza-ratu zuen, aurreko testuari hainbat zuzenketa egin eta testua areago landu ondoren. Azken edizio hau da kontuan hartuko duguna. Ik. orobat Mitxelenaren *Hitzaurrea* Azkueren hiztegiaren azken edizioan: *Diccionario Vasco-Español-Francés*, Euskaltzaindia, 1984, Bilbo.
56. Ik. *Orotariko Euskal Hiztegia*, II. lib. (*Ame-Asd*), “Introducción”, XIII. orr.
57. R. M^a Azkue, *Diccionario vasco-español-francés* (bi liburuki), La Gran Editorial Vasca, Donostia, 1969.
58. Juan Gorostiaga euskaltzain osoaren laguntza erabakigarria izan zen berrinprimatze horretan. Berak idatzi zuen edizio facsimile horretarako “Prologoa”, eta Jaime Kerexeta euskaltzain urgazleak “Presentación” delakoa. Lino Akesolo euskaltzain osoak “Suplemento” deritzanaren hitzaurrea idatzi zuen.
59. Ik. “Suplemento al diccionario precedente”, Lino Akesolo euskaltzainak paratua, Azkueren bigarren liburukiaren ostean, 489-590 orr.
60. K. Mitxelena: *Euskaltzaindiaren Euskal-Iztegia*, in *Euskera*, XIII, 1968, 270-271 orr. Hitzokin ematen dio hasiera artikulujakingarri honi: “Euskaltzaindiak euskal-iztegi bat, euskal-itzak euskeraz azaltzen dituen, egitea erabaki duen ezkeror, itz bitan agertuko dut neure orrezazko iritzia” (270 orr.).
61. *Ib.* 270 orr.
62. *Ib.* 270 orr.
63. *Ib.* 270 orr.
64. *Ib.* 270 orr. Letra etzana jatorrizkoarena da.
65. *Ib.* 270 orr.
66. *Ib.* 271 orr.
67. *Ib.* 271 orr.
68. *Ib.* 271 orr.
69. Mitxelenaren *Ortografia* zeritzan txostena eta Villasanteren *Antzinako euskal hitzen formaz* izeneko erabakigarriak izan ziren Batasunerako Hiztegia egiterakoan. Villasanteren lanerako, ikus *Euskera* XIII, 1968, 175-201 orr.; Mitxelenaren txostena jarraian dator: 203-219 orr.
70. *Euskera* XIII, 1968, 251-265 orr.
71. 251 orr. *H* letraren erabilera jatorrizko testuarena da.
72. Honela dio hitzez hitz: “*H*-ren hauzian, izan diren iritziak entzun ondoan, erdi-bide bat aukeratu da hasteko: alegia, begi onez ikusiko lukeala Euskaltzaindiak letra hori bi

- bokal berdin nahiz ezberdinen artean erabiltzen hastea. Honek ez du esan nahi gorago jo nahi dutenen saioak ez direla ongi ikusiak izango”. *Ib.* 250 orr.
73. 251 orr. Testua erraz uler daitekeenez, bere horretan utzi dugu, irakurleak hobeki ikus ahal dezan orduko idazkera batu hasiberria nolakoa zen.
 74. Euskal Idazleen Elkarte: *Batasunaren Kutxa*, LUR, Donostia, 1970. Hiztegirako ikus 93-232 orr.
 75. 93 orr.
 76. *Euskera*, 1975, 8 orr.
 77. *Ib.* 8 orr.
 78. Mitxelenak prestaturik zeukan euskal hitzaurrean hauxe irakur daiteke: “Antzinetik hasi gara, Akitaniatik batez ere, eta Erdi Arokoak ez ditugu baztertu, jakinaren gainean ez bederen. Geroztikakoak, gurean inprenta lanean hasiz geroztikoak ahaleginean bildu ditugu: XVI.goak, bestela esan XVII.goak eta guti gora-behera, 1745 artekoak, hots, Larramendiren hiztegi hirukoitza agertu artekoak. Hutsarteak, zer esanik ez, gero eta ugariago dira gure egunotara inguratu ahala”. *Orotariko Euskal Hiztegia*, I. lib. Atariko oharra, IX orr.
 79. *Orotariko Euskal Hiztegia*, I. lib. Ibon Sarasolaren “Introducción” izenekoak, XI orr.
 80. *Ib.* XI orr. I. Sarasolak “Introducción” izenekoan plazaraturiko Koldo Mitxelenaren gaztelaniazko sarrera-testuko aipua da. Euskal itzulpena gurea da.
 81. Bilketaren zabaltasunaz eta sistematikotasunaz ideia bat egiteko datu jakingarri batzuk: 1745 arteko euskal testu guztiak eta 1880 arteko testu esanguratsu gehien-gehienak ere hustu dira, eta 1880-1968 urteetako autorerik gailenen obra nagusiak ere bai. Orotara, 4 milioi testu-hitz arakatu dira eta, halaber, 1977an 800.000 testu-hitzen gaineko I. Sarasolaren *Maiztasun Hiztegiaren* erreferentziak aintzat hartu dira. *Ib.* XIV orr.
 82. *Ib.* XII orr.
 83. *Orotariko Euskal Hiztegia*, 2. lib., “Irakurle euskaldunari”, X orr.
 84. *Ib.* X orr.
 85. 19 orr. 1983ko edizioaren arabera. Eskaintzaren testua, baina, 1965ekoa da.
 86. *Orotariko Euskal Hiztegia*, 2. lib., “Irakurle euskaldunari”, VII orr.
 87. *Orotariko Euskal Hiztegia*, 2. lib., “Irakurle euskaldunari”, VIII orr.
 88. Mitxelenaren laguntza ezinbestekoa izan arren, euskal hiztegi etimologikoaren ardura nagusia Antonio Tovar-ek eta, bereziki, Manuel Agud-ek hartua zuten 1977az geroztik bederen. Joan Corominas-en laguntza ere erabakigarria izan zen. A. Tovar 1985ean zendu zen, bere lanaren fruitua argitara baino lau urte lehenago. Haren lankide sutua zen M. Agud hizkuntzalari gipuzkoarrak jarraipen txalogarria eman zion aurreko elkarlanari hil arte, zazpi liburuki argitara emanez (M. Agud - A. Tovar: *Diccionario etimológico vasco A - Orloi*), ASJU eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik 1989az geroztik (Ik. Bibliografia). Gutxi daki Agud jaunarekin dugun zor estima ezina. Lerrook izkiriatzen ditudan honek zor diot hizkuntzalaritza zientifikoaren bidea pertsonalki irakatsi izana.
 89. 1977an Sarasolak, Gipuzkoako Kutxaren laguntzaz, bere *Euskal Hiztegi Arauemailea* zeritzanaren lehen prestaera argitara eman zuen, lau liburukitan, 500 ale inguruko edizio batean, euskaltzain eta euskal adituen artean zabaldu zuena, berauen iritziaz sistematikoki jaso eta kontuan izateko asmoz. *Hauta-lanerako Euskal Hiztegia*, 1984-1994 epealdian bederatzi liburukitan argitara emana Kutxa Fundazioaren eskutik, 1977koaren bigarren prestaera eta idatzaldia da, 1995ean liburu mardul bakar batean bildu eta publikatu zena, *Euskal Hiztegia* tituluarekin. 2007an *Euskal Hiztegiaren* hirugarren eta azken idatzaldiaren edizio nabarmen aberastua eskaini digu. Hiztegi zinez eredugarria eta bide-erakuslea.
 90. Azkuerenaz eta Lhanderenaz geroztik, mugaz honaindian, Plazido Mujikak bi hiztegi handi argitara eman zituen 1964an: *Diccionario Vasco-Castellano* (bi liburuki handitan) eta *Diccionario Castellano-Vasco*. Biak ala biak balio handikoak, ezin uka, baina arauemaile

eta batasun-egile izateko bokaziorik eta baliabiderik erakusten ez zutenak.

91. 1980ko edizio eraberrituari *Hiztegi 80* izenburua ezarri zion eta 1986ko argitaraldi eguneratuari *Hiztegi 2000* titulua. Hiztegi horren langintza oso kontuan hartu zuela ELHUYAR taldeak, Xabier Kintana, Miren Azkarate eta Xabier Mendiguren Bereziarturen zuzendaritzapean, *Euskara-gaztelania / castellano-vasco 'Elhuyar' Hiztegia* ontzean, Ibon Sarasolaren *Hautalangerako Euskal Hiztegiaren*, UZEIren hiztegi espezializatuen eta 'Elhuyar' taldearen eskarmentu handiaren eragin erabakigarria ahanzi gabe. 1996an plazaratu zen eta arrakasta handia izan du urte hauetan guztietan. 83.000 sarrera eta 12.000 azpisarrera zituen lehen edizioak.
92. *Merkatalgo Izendegia* 1974an argitara eman zuen Xabier Kintanak lehen aldiz; 1982an bigarren edizio bat egin zuen, lehena "osatu eta hitz gehiagoz aberasturik", eta 1979ko Bergarako erabakiak errespetaturik *H* letraren erabilerari dagokionez, egileak berak "Hitzaurrean" dioenez: *Merkatalgo Izendegia, Kargu eta Bilera-lekuena*, in *Euskera*, XXVII (2. aldia), 1982, 549-593 orr. Hiztegi berezitu honek bi atal ditu: gaztelania-euskara eta frantses-euskara.
93. Plaza publikora azaldu zen polemikaren berri zehatzik nahi duenak aski du Mitxelenaen "*Nuestra irresistible ascensión de la poesía a la ciencia*" 1981eko artikulua (in *Sobre historia de la lengua vasca*, 1000-1010 orr.) eta UZEIko langileek eta Jose Azurmendik, nork bere aldetik, eman zioten erantzuna (in *Jakin*, 23, 1982).
94. Euskaltzaindia berehala, 1981ean bertan, ahalegindu zen polemika baretzen eta hari zentzuzko konponbiderik eskaintzen. 1981eko urriaren 30ean eginiko bileraren aktak hitzokin laburbiltzen du gaiaren traeta: "Hiztegi espezializatuak. Luze doa Euskaltzaindiari dagokion Hiztegi espezializatuen aholkua nola eman behar lukeen erabakitzea. Gai norapilatsua (...) J. San Martinek ...lanen garantia eta metodologia aurrez nolabait segurtatzea komenigarri ikusten zuen (...) Mitxelena jaunaren gutuna irakurri du gero Villasante jaunak arazo honetan haren ikuspegia jakinaraziz. Krutwig eta Altuna euskaltzainek ere beren oharrak idatzirik ekarri dituzte. Eztabaida luze eta bizi baten ondotik, batzarkideek dituzten oinarriko iritzi berdinak azpimarratu dira aterabide baten bila urratsak ematen hasi nahiz (...) Baikorra izan da lana eta nola edo hala zerbait erabaki beharko da". *Euskera* XXVII (2. aldia), 279 orr. Letra etzana gurea da. Luze gabe, Euskaltzaindiak UZEIri aitortu zion bere ekarpena eta *Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistemakoa* deritzan corpusaren ardura egotzi zion, Hiztegi Batuaren bidean ezinbesteko oinarria izango zena, *Orotarikoarekin* batean. Ikus orobat gure idazlan honetako 113. oharra.
95. Ik. 1981eko abenduaren 29ko Euskaltzaindiaren adierazpena hiztegegintzari buruz: *Euskera*, 1982, 271 orr.
96. Mikel Zalbide: "Hiztegegintza Batzordea", in *Euskera* XXXI (2. aldia), 1986, 127-128 orr.
97. 1982ko irailean Maileguzko Hitzen Batzordea sortua zuen Euskaltzaindiak. Ik. Mikel Zalbide: *Ib.* 127 orr. Ik. orobat *Euskera*, 1982, 271 orr.
98. *Euskararen auziaz*, 258 orr.
99. Beste hitzekin bada ere, horixe adierazten du Villasantek orduko erabakia aipatzean: *Euskararen auziaz*, 258 orr.
100. *EESB: Egungo Euskararen Bilketa Sistemakoa*.
101. Ik. Mikel Zalbide: "Hiztegegintza Batzordea: 1986rako Ekintza Plana", in *Euskera* XXXI (2. aldia), 1986, 530-533 orr.
102. Ik. Mikel Zalbide: "Hiztegegintza Batzordea: 1986rako Ekintza Plana", in *Euskera* XXXI (2. aldia), 1986, 527-530 orr.
103. *Euskera*, XXXVI (2. aldia), 1991, 757-758 orr.
104. Letra etzana jatorrizko testuarena da bi aipamenetan.
105. Adibide esanguratsu ugari Ibon Sarasolaren *Euskararen ajeaz* (1997, Alberdania) liburu mamitsuan aurki daitezke. Bertan Hiztegi Batuaren arduradun nagusiak zehazten ditu

hiztegi hiritartua egiteko aintzat hartu dituzten irizpide nagusiak, hurrengo epigrafeetan ikusiko dugunez.

106. *Hauta-lanerako Euskal Hiztegia*, 1. lib. (*A-aurten*), “Sarrera”, 39 orr.
107. *Ib.* 39 orr.
108. Sarasola: “Irakurle euskaldunari”, in *Orotariko Euskal Hiztegia*, II. lib., X orr.
109. Gorago adierazi dugunez, G. Arestik eta X. Kintanak eginiko *Batasunerako lehen hiztegia* [*Batasunaren Kutxa* izeneko liburuarren baitan plazaratua, 1970ean] izan zen euskara metahizkuntzat hartu zuen lehen euskal hiztegia, 5.810 sarrera-hitz zituela; Sarasolaren *Euskal Hiztegi Arauemailearen* lehen prestaera (1977) bigarrena izan zen, 12.000 sarrera-hitz ingururekin; “Bostak Bat” lantaldearen *Euskararako Hiztegia* (1986) hirugarrena izan zen 13.000 sarrera-hitzekin (1990eko bigarren edizioak 16.427 sarrera-hitz zituen). Sarasolaren *Euskal Hiztegia* (1995, 2007²) denetan handiena dugu eta batasunaren ikuspegitik landuena eta seguruen; 40.000 sarrera-hitz inguru ditu.
110. Dataren bidez zein hiztegi edo/eta dokumentutan aurkitu den lehenik jakin daiteke, Hiztegiaren sarreran datei dagozkien dokumentuen erreferentziak argiro ematen direnez gero.
111. Ik. *Euskera*, XXXVI (2. aldia), 1992, 1135-1145 orr.
112. *Ib.* 1135-1136 orr.
113. Zerrendari erreparatuz gero, ohartuko gara 1981ean piztu zen polemika osotoro gainditua dagoela. UZEIko bi lagun batzordearen partaide ditugu, ahaztu gabe Mikel Zalbide eta Xabier Kintana ere UZEIko partaide izan zirela garai hartan, lehena *Matematika Hiztegiaren* zuzendaria eta bigarrena *Hizkuntzalaritza Hiztegiaren* arduradun nagusia izan baitziren. Bestalde, gogoan hartu behar da Miren Azkarate eta Xabier Kintana, Xabier Mendiguren Bereziarturekin batean, ELHUYAR taldearen hiztegi elebidun handi eta arrakastatsuen zuzendari nagusiak izan direla, eta Luis Baraiazarra ADOREZ izeneko euskal hiztegi elebakar eta elebidun ezagunen arduradun nagusietako bat dela. Ibon Sarasola, *Euskal Hiztegiaren* egilea izateaz gainera, *Gaztelania-euskara Zehazki Hiztegi* bikainaren egilea da eta *Euskara-euskara LUR hiztegiaren* egiletako bat. Horrenbestez argi dago egungo euskal hiztegi gintzarik onenaren isla dela batzordea.
114. Azpimarra gurea da, hurrengo guztiak bezala.
115. Ikus gorago adierazpen funtsezko horri buruzko azalpena (atal honetako 3. epigrafea)
116. Jakinarazi digutenez, lehen edizio osotuak 2000. urtean Euskaltzaindiak argitaratutako lehen zerrendako hitzak eta hitz horietako batzuen definizioetan ezinbestean agertuko diren beste ehunen bat hitz jasoko ditu.
117. *Euskera*, 2000, 2, 45. liburukia, 481-484 orr.; *Hiztegi Batua*, Euskaltzaindia-Elkar, 2008, 7-11 orr.; 2010, 9-13 orr.
118. Orrialdea 2010eko edizioaren arabera aipatzen dugu.
119. Egia da beste herrialdeetako Hizkuntza Akademiek argitaratzen dituzten hiztegi arauemaileek ere ez dutela hitzei buruzko datarik ematen, baina, euskal hitzen gaineko eztabaida ezagunak kontuan izanik, uste dugu mesede handia egingo liokeela erabiltzaileari *Hiztegi Batuan* data-aipamen hori egiteak.
120. Elhuyar taldea: *Euskal Hiztegi Modernoa*. Argitalpen berritua. Elhuyar / Elkarlanean, Donostia, 2000.
121. ATELA, A.; NAVARRO, K.; SARASOLA, I.: *Euskara-euskara Hiztegia*. Lur, Donostia, 1996.

Bibliografia

- Agud Tovar, M.** 1989. *Diccionario etimológico vasco I (A - Ardui)*, ASJU, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1993 (2. arg.).
- Agud Tovar, M.** 1990. *Diccionario etimológico vasco II (Ardun - Beuden)*, ASJU, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1993 (2. arg.).
- Agud Tovar, M.** 1991. *Diccionario etimológico vasco III (Beule - Egileor)*, ASJU, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- Agud Tovar, M.** 1991. *Diccionario etimológico vasco IV (Egiluma -Galanga)*, ASJU, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- Agud Tovar, M.** 1991. *Diccionario etimológico vasco V (Galazni - Iloza)*, ASJU, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1991.
- Agud Tovar, M.** 1993. *Diccionario etimológico vasco VI (Ilpiztu - Korotz)*, ASJU, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- Agud Tovar, M.** 1995. *Diccionario etimológico vasco VII (Korpa - Orloi)*, ASJU, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- Agud Tovar, M.** Ik. Landuchio, N.
- Aizquibel, Francisco de** 1883-1885. *Diccionario Basco-Español. Euskeratic erderara biurtzeko itztegia* (2 lib.), Casa Editorial Eusebio Lopez, Tolosa.
- Alberdi X., Sarasola, I.** 2001. *Euskal estilo libururantz. Gramatika, estiloa eta hiztegia*, EHUKo Argitalpen Zerbitzua, 2001, Donostia.
- Altube, S.** 1920. “Erderatiko-itzak, itz-barriak eta aintxiña-itzak”. *Euskera* 2: 44-54.
- Altube, S.** 1922. “Euskel-itz barriak. Eurok eraltzeko, erderaak zetara lagun egin bear deuskuen”, *Tercer Congreso de Estudios Vascos*, Donostia: 78-93.
- Altube, S.** 1928: “Batasunera-bidean”, *Euskera I*: 67-85 orr.
- Altube, S.** 1929: *Erderismos*, *Euskera*, X, I-IV, 1929, 1-315 orr.; 1975 (2. arg., Villasanteren “Hizaurre gisa” V-XII orr.).
- Altube, S.** 1956: “Literatur-euskera”, *Euskera*, 1956, I, 3-13 orr.
- Alvarez Enparanza J. L.** (“Txillardegí”) 1959. “Batasunaren bidea”, *Euskera*, IV, 150-172 orr.
- Amuriza, X.** 2010. *Euskara batuaren bigarren jaiotza*, Lanku, Oiartzun.
- Añibarro.** 1963: *Voces bascongadas diferenciales de Bizcaya, Guipúzcoa y Navarra*, Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbo, Luis Villasanteren edizioa (jatorrizkoa 1820. urte ingurukoa da).
- Arana Goiri, S.** 1965. “Los Congresos ortográficos de Hendaia” (1902), in *Obras Completas*, Buenos Aires, 2.095-2.120 orr.
- Arana Goiri, S.** 1965. “Observaciones sobre las condiciones generales que debe reunir un Diccionario de Euzkera” (1886an idatzia, 1905ean argitaratua), in *Obras Completas*, Buenos Aires, 2.303-2.309 orr.
- Aresti, G.; Kintana, X.** 1970. “Lehen euskal hiztegi bateratua (Bigarren prestaera)”, in *Euskal Idazleen Elkartea: Batasunaren Kutxa*. LUR, Donostia.
- Aresti, G.** 1973. *Hiztegi Tipia* (a-dyle), Bilbo.
- Atela, A. Navarro, K. Sarasola, I.** 1996. *Euskara-euskara LUR hiztegia*.
- Azkarate, M.** 1990. *Hitz elkartuak euskaraz*, Deustuko Unibertsitatea, Donostia.
- Azkue, R. M.^a** 1918. *Diccionario de bolsillo [vasco-español / español-vasco]*, Bilbo.
- Azkue, R. M.^a** 1920. “Erderatiko itzak, itz sorberriak eta beinolako itzak”, *Euskera* 2, 54-73 orr.
- Azkue, R. M.^a** 1984. 1905-1906: *Diccionario Vasco-Español-Francés* (2 lib.), Bilbo, 1905-1906; 1980 (2. arg.); Euskaltzaindia, (3. arg.).
- Azkue, R. M.^a** 1916. *Diccionario Español y Vasco* (4 lib. A-Avezarse), Bilbo.
- Azkue, R. M.^a** 1923. Morfología Vasca, *Euskera*, IV, V eta VI; La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1969 (2. arg., 3 lib.).
- Azkue, R. M.^a** 1932. “Observaciones acerca de ‘Euskaltzaindiari’ de Altube’tar S.” (1932-02-24), *Euskera*, 144-149.
- Azurmendi, J.** 1982. “UZEI auzitan edo normalizazio bideak auzitan”, *JAKIN*, 23, 77-120 orr.

- Bera, R. M^a, Lopez Mendizabal, I.** 1916. *Diccionario Castellano-Euskera. Euskal-Erdel-Iztegia*, Tolosa.
- Bostak bat lantaldea.** 1990. *Diccionario 3000 Hiztegia (euskara-gaztelania / castellano euskara)*, Adorez 9, Bilbo, 1996 (2. arg.).
- Bostak bat lantaldea.** 1986. *Euskararako Hiztegia*, Adorez 2, Bilbo, 1990 (2. arg.).
- Campion, A. Broussain, P.** 1922. “Informe a la Academia de la Lengua Vasca sobre unificación del euskera”, *Euskera*, 4-16 orr.
- Cardaveraz.** 1761. *Eusqueraren berri onac*, Iruñea,; Euskaltzaindia, Euskararen lekukoak Saila.
- De La Sota, M. Lafitte, P. Akesolo, L.** 1976. *Diccionario Retana de autoridades del euskera* (9 lib.), La Gran Enciclopedia Vasca, Donostia.
- ELHUYAR.** 2001. *Euskal Hiztegi Modernoa* (argitalpen berritua), Elhuyar, Usurbil.
- ELHUYAR.** 1996: *Euskara-gaztelania/castellano-vasco Hiztegia*, Elhuyar, Usurbil, 2006 (2. arg.) [M. Azkarate, X. Kintana eta I. Mendiguren Bereziartu zuzendariak].
- Euskal Idazkaritza.** 1964 “Baionako Biltzarraren Erabakiak”, 8 orr.
- EUSKALTZAINDIA.** 1959: “Euskaltzaindiaren agiria euskal hitzei buruz” (1959-04-2), *Euskera*, IV (2. aldia), 214-217 orr.
- EUSKALTZAINDIA.** 1968. “Batasunari batzuk agurka eta beste batzuk aurka. Arantzazuko Batzarrera eldu ziren txostenen berri”, *Euskera*, XIII, 221-249 orr.
- EUSKALTZAINDIA.** 1968. “Batasunerako hiztegia”, *Euskera*, XIII, 251-265 orr.
- EUSKALTZAINDIA.** 1968. “Literatura euskaren batasunari buruz Euskaltzaindiaren agiria”, *Euskera*, XIII, 250 orr.
- EUSKALTZAINDIA.** 1971. “Idatz-arauak”, *Euskera*, XVI (2. aldia), 143-159 orr.
- EUSKALTZAINDIA.** 1973. “Merkatalgo Izendegia, kargu eta bilera-lekuena”, *Euskera*, XVIII (2. aldia), *Euskera*, XXVII (2. aldia) 1982 (2. arg.), 549-593 orr.
- EUSKALTZAINDIA.** 1975. *Zortzi urte arteko ikastola hiztegia*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- EUSKALTZAINDIA.** 1977. *Euskal izendegia*, Euskaltzaindia, Iruñea.
- EUSKALTZAINDIA.** 1978. “Matematika hiztegia”, *Euskera*, XXIII (2. aldia), 255-268 orr.
- EUSKALTZAINDIA.** 1979. *Euskal Herriko udalen izendegia*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- EUSKALTZAINDIA.** 1982: “Euskaltzaindiaren adierazpena euskara batuaz” (1993-05-28), *Euskera*, XXXVIII (2. aldia).
- EUSKALTZAINDIA.** 1982: “Euskaltzaindiaren adierazpenak. 1. Hiztegi gintzaz”, *Euskera*, XXVII (2. aldia), 271 orr.
- EUSKALTZAINDIA.** 1982. “Hiztegi espezializatuak” [Akta], *Euskera*, XXVII (2. aldia), 279 orr.
- EUSKALTZAINDIA.** 1984. “Maileguzko hitzak 1. Hitz hasierak” (1983-12-30), *Euskera*, XXIX (2. aldia).
- EUSKALTZAINDIA.** 1984. “Maileguzko hitzei buruzko adierazpena” (1983-10-29), *Euskera*, XXIX (2. aldia).
- EUSKALTZAINDIA.** 1986. “Lexikologi Erizpideak Finkatzeko IV. Jardunaldia” [Akta], *Euskera*, XXXI (2. aldia), 486-487 orr.
- EUSKALTZAINDIA.** 1986. “Maileguen azken testua”, *Euskera*, XXXI, 118 orr.
- EUSKALTZAINDIA.** 1986. *Maileguzko hitz berriei buruz Euskaltzaindiaren erabakiak*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- EUSKALTZAINDIA.** 1987. *Hitz-elkarketa /1. LEF Batzordearen lanak*. Euskaltzaindia, Bilbo.
- EUSKALTZAINDIA.** 1989. *Hitz-elkarketa /2. LEF Batzordearen lanak*. Euskaltzaindia, Bilbo.
- EUSKALTZAINDIA.** 1991. “Euskaltzaindiaren bigarren agiria euskal hitzei buruz” (1991-04-26), *Euskera*, XXXVI (2. aldia), 757-758 orr.
- EUSKALTZAINDIA.** 1991. *Hitz-elkarketa /3. LEF Batzordearen lanak*. Euskaltzaindia, Bilbo.
- EUSKALTZAINDIA.** 1992. “Hitz elkartuen osaera eta idazkera. Euskaltzaindiaren gomendio-arauak” (1992-06-26), *Euskera*, 1-2. separata eta 3. separata, Bilbo.

- EUSKALTZAINDIA.** 1992. "Hiztegi Batua. Lanketa- eta onespenez-prozedurak", *Euskera*, XXXVI (2. aldia), 1135-1145 orr.
- EUSKALTZAINDIA.** 1993. *Hitz-elkarketa /4. Hitz elkartuen osaera eta idazkera. LEF Batzordearen emaitza. Euskaltzaindiaren gomendio-arauak*, Euskaltzaindia Bilbo.
- EUSKALTZAINDIA.** 1994-1999. *Euskaltzaindiaren Arauak* (1994-10-28tik hasita).
- EUSKALTZAINDIA.** 2000. *Hiztegi Batua*, Euskera, Bilbo.
- EUSKALTZAINDIA.** 2008. *Hiztegi Batua*, Elkar, Bilbo (2. arg.)
- EUSKALTZAINDIA.** 2010. *Hiztegi Batua*, Euskaltzaindia; Elkar, Bilbo, (3. arg.).
- Fagoaga, B.** 1959. "Azkueren iztegi berritu eta osoturako", *Euskera*, IV, 63-78 orr.
- Harriet, M.** 1741. "Dictionarioa escuaraz eta francesez; Dictionnaire François & Basque", in *Gramatica escuaraz eta francesez*, Baiona, 268-323; 324-440 orr.
- Harriet, M** (1878-1904). Hiztegiaren eskuizkribua 3.536 orrialde.
- HIZTEGI BATUKO BATZORDEA.** 1997. "Hiztegi batua osatzeko irizpideak" (1997.03.03), 13 orrialde; batzordekideen eta euskaltzainen erabilpenerako
- HIZTEGI BATUKO BATZORDEA.** 1994. "Hiztegi Batua: 3. aztergaia" (1994.05.20) A letra, 89 orrialde; batzordekideen eta euskaltzainen erabilpenerako.
- Irigoién, A.** 1959. "Berkak eta hizkuntza", *Euskera*, IV, 173-183 orr.
- Izutueta, J. I.** 1996. *Vocabulario de vascuence [1832]*, P. Urkizu argitaratzaile, Zaldibia,
- JAKIN.** 1982. Mitxelena-UZEI arazoa: Bibliografia, JAKIN, 23, 121-126 orr.
- Kintana, X. Charritton, P.** 1997. *Hiztegia Dictionnaire euskara-frantsesa / frantsesa-euskara*, Elkar.
- Kintana, X. et alii.** 1977. *Euskal Hiztegi Modernoa*, Bilbo.
- Kintana, X. et alii.** 1986. *Hiztegia 2000 (euskara-gaztelania /gaztelania-euskara)*, Bilbo.
- Kintana, X. et alii.** 1980. *Hiztegia 80 (euskara-gaztelania /gaztelania-euskara)*, Bilbo.
- Kintana, X. et alii** Ik. ARESTI, G.
- Kintana, X. et alii** Ik. ELHUYAR
- Lakarra, J. A.** 1985. "Berriz Larramendiren segi-zioko zenbaitez", *ASJU*, XIX-2, 439-452 orr.
- Lakarra, J. A.** 1985. "Larramendiren hiztegi-gintzaren inguruan", *ASJU*, XIX-1, 9-50 orr.
- Lakarra, J. A.** 1992. "Larramendiren aurreko hiztegi-gintzaren historiaz: aztergai eta gogoeta", in *M. Larramendi. Hirugarren mendeurrena (1690-1766)* I, Andoain, 217-258 orr.
- Lakarra, J. A.** 1994. "Euskal hiztegi-gintzaren historiarako: II. Gogoetak Urteren hiztegi-gintzaz", *ASJU*, XXVIII-3, 871-884 orr.
- Lakarra, J. A.** 1994. "Euskal hiztegi-gintzaren historiarako: III. Urteren Gramatikako hiztegia", *ASJU*, XXVIII-3, 885-914.
- Lakarra, J. A.** 1994. "Harrietan Gramatikako hiztegia (1741)", *ASJU*, XXVIII-1, 1-178 orr.
- Lakarra, J. A.** 1995. "Pouvreauren hiztegiez eta hiztegi-gintzaren historiaz" *ASJU*, XXIX-1, 3-52 orr.
- Landuchio, N.** 1958. *Dictionarium linguae Cantabrigiae* (1562), M. Agud eta K. Mitxelena-ren edizio kritikoa, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- Larramendi, M.** 1745. *Diccionario trilingüe del Castellano, Bascuence y latín* (2 lib.), Donostia, 1853 (2. arg.), 1979 (facsimilezko edizioa).
- Lhande, P.** 1926. *Dictionnaire Basque-Français*, G. Beauchesne, Paris.
- Mendizabal-Bera, L.** 1916. *Diccionario*.
- Mitxelena, K.** 1958. Ik. LANDUCHIO, N.
- Mitxelena, K.** 1959. "Euskal hitzak zein diren", *Euskera*, IV (2. aldia), 206-213 orr.; orobat *MEIG*, VII, 125-134 orr.
- Mitxelena, K.** 1959. "La obra del P. Manuel de Larramendi (1690-1766)", *SHLV*, 900-911 orr.
- Mitxelena, K.** 1961. "Euskal hiztegi-gileak XVII-XVIII. mendeetan", *Euskera*, VI (2. aldia), 7-22 orr.; orobat *MEIG*, VII, 47-66 orr.; *SHLV*, 361-372 orr.

- Mitxelena, K.** 1964: “Azkue eta Euskal Hiztegia”, *Zeruko Argia* (1964-08-09), 4. orr.; orobat *MEIG*, VII, 71-74 orr.
- Mitxelena, K.** 1965. *Estudio sobre las fuentes del Diccionario de Azkue* (1965), Centro de estudios históricos de Vizcaya”, 1970; 1983 (2. arg., in Azkueren Hiztegiaren 1983ko edizioaren sarreran).
- Mitxelena, K.** 1966: “Aita Larramendiren Ehun Urteurrenean (1690-1766)”, *Zeruko Argia* (1966-01-30), 1. orr.; orobat *MEIG*, VII, 67-70 orr.
- Mitxelena, K.** 1966. “Azkue lexicógrafo”, *SHLV*, 373-384 orr.
- Mitxelena, K.** 1968. “Euskaltzaindiaren Euskal Hiztegiak”, *Euskera*, XIII, 270-271 orr.; orobat *MEIG*, VII, 75-78 orr.
- Mitxelena, K.** 1968. “Ortografia. Ze batasunen bila gabiltzan”, *Euskera*, XIII, 203-219 orr.; orobat *MEIG* VII, 135-154 orr.; *SHLV*, 900-911 orr.
- Mitxelena, K.** 1973. “Lexicografía técnica”, *SHLV*, 400-408 orr.
- Mitxelena, K.** 1974. “De lexicografía vasca. A propósito de *Axular-en Hiztegia* del Padre Luis Villasante”, *FLV*, VI, 103-122 orr.; orobat *SHLV* 385-399 orr.
- Mitxelena, K.** 1978. “Arantzazutik Bergarara”, *Euskera*, XXIII (2. aldia), 467-477 orr.; orobat *MEIG*, VII, 161-172 orr.
- Mitxelena, K.** 1979. “Euskal hitzen jatorri eta itxura besberdinaz”, *Euskera*, XXIV-2 (2. aldia), 773-785 orr.; orobat *MEIG*, 173-186 orr.; *SHLV* 341-348 orr.
- Mitxelena, K.** 1981. “Nuestra irresistible ascensión de la poesía a la ciencia”, *Muga*19, 12-21; *SHLV*, 1000-1010 orr.
- Mitxelena, K.** 1983. “Mendiburu eta Larramendi”, *Euskera*, XXVIII (2. aldia), 1, 19-23 orr.; orobat *SHLV*, 912-915 orr.
- Mitxelena, K.** 1983. “Hitz mailebatuez”, *Euskera*, XXVIII (2. aldia), 103-105 orr.; orobat *MEIG* VII, 187-190 orr.; *SHLV*, 436-438 orr.
- Mitxelena, K.** 1984. “Hauta-lanerako Euskal Hiztegiaren aurkezpena”, in I. Sarasola: *Hauta-lanerako Euskal Hiztegia*, I, 11-23 orr.; orobat *MEIG*, VII, 25-46 orr.; *SHLV*, 349-360 orr.
- Mitxelena, K.** 1985. “Mailegu berrien idazkera”, *Euskera*, XXX (2. aldia), 457-459 orr.; orobat *MEIG*, VII, 191-194 orr.
- Mitxelena, K.** 1985. “La normalización de la forma escrita de una lengua: el caso vasco”, *Lengua e Historia*, Madrid, 213-228 orr.
- Mitxelena, K.** 1987. “Orotariko Euskal Hiztegiaren inguruan”, *Euskera*, XXXII (2. aldia), 127-129 orr.; orobat *MEIG*, VII, 79-82 orr.
- Mitxelena, K.** 1987. *Orotariko Euskal Hiztegia* (16 lib.), Mensajero, Bilbo, 1987-2005
- Mugica, P.** 1964. 1980. *Diccionario Castellano-Vasco*, Mensajero, (3. arg.).
- Mugica, P.** 1964. 1981. *Diccionario Vasco-Castellano* (2 lib.), Mensajero, (2. arg.).
- Mujika L.M^a.** 1977-1979. *Diccionario General y Técnico* (1. castellano-euskara; 2. euskara-castellano), Ediciones vascas, Donostia.
- Novia de Salcedo, P.** 1887. *Diccionario etimológico del idioma bascongado* (2 lib.), Tolosa.
- Pagola, I.** 1984. “Neologismos en los juegos florales”, *ASJU*, XVIII-1, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 53-159 orr.
- Pagola, I.** 2005. *Neologismos en la obra de Sabino Arana Goiri*, Euskaltzaindia (Iker Saila 18), Bilbo.
- Pouvreau, S.** (1665. urte inguruan) *Eskuizkribuzko Hiztegia*, argitaragabea.
- Sarasola, I.** 1977. *Maiztasun-hiztegia* (Corpus zerrendatua), Gipuzkoako Kutxa, Donostia.
- Sarasola, I.** 1977-1979: *Euskal Hiztegi Araue-mailea* (Lehen prestaera, 4 lib.), Gipuzkoako Kutxa, Donostia.
- Sarasola, I.** 1984-1995. *Hauta-lanerako Euskal Hiztegia* (9 lib.), Kutxa, Donostia.
- Sarasola, I.** 1986. “Larramendiren eraginaz eta”, *ASJU*, XX-1, 203-215 orr.
- Sarasola, I.** 1988. “Oharrak XX. mendeko hiztegi gintzaz *Orotariko Euskal Hiztegia* arte”, in *Hiztegiak eta testuak* (J. A. Lakarra arg.), EHU-ko Argitalpen zerbitzua, Bilbo., 895-920 orr.
- Sarasola, I.** 1997. “Euskal hitz altxorraz”, *ASJU*, XXXI-2, 617-642 orr.

- Sarasola, I.** 1997. *Euskal Hiztegia*, Gipuzkoako Kutxa, Donostia.
- Sarasola, I.** 1997. *Euskara batuaren ajeak*, Alberdania, Donostia.
- Sarasola, I.** 2002. “Euskal hiztegegintzaren historiarako oharrak: Añibarro, Iztueta eta Aizkibelen hiztegiez eta Azkueren hiztegegintzaz”, in *Hiztegiak eta testuak II*, EHUKo Argitalpen Zerbitzua, Bilbo, 611-627 orr.
- Sarasola, I.** 2003. “Zalantzen hiztegia”, in X. Alberdi eta I. Sarasola: *Euskal estilo liburu-rantz. Gramatika, estiloa eta hiztegia*, EHUKo Argitalpen Zerbitzua, 2001, Donostia, 321-355 orr.
- Sarasola, I.** 2003. *Eskolako Hiztegia (euskara-gaztelania / catellano-euskara)*, Erein, Donostia.
- Sarasola, I.** 2005. “Irakurle euskaldunari”, in I. Pagola: *Neologismos en la obra de Sabino Arana Goiri*, IX-XI orr.
- Sarasola, I.** 2005. *Zehazki gaztelania-euskara Hiztegia*, Alberdania.
- Sarasola, I.** 2007. *Euskal Hiztegia*, Elkar, Donostia.
- Sarasola, I.** Ik. ALBERDI, Xabier *et alii*.
- Sarasola, I.** Ik. ATELA, Aintzane *et alii*.
- Tournier, M. Lafitte, P.** 1953. *Lexique Français-Basque*, Baiona.
- Urgell, B.** “Estudios en torno a la historia de la lexicografía vasca”, *ASJU*, XXXI-2, 643-685 orr.
- Urgell, B.** 2000. *Larramendiren Hiztegi Hirukoitza-ren osagaiez* (3. lib.), Gasteiz, (argitaragabeko tesia).
- Urkizu, P.** 1996 (arg.). *Juan Ignazio Iztueta. Vocabulario de vascuence [1832]*, Zaldibia.
- Urkizu, P.** 1989. *Pierre D’Urteren Hiztegia* (2 lib.), Deustuko Unibertsitatea, Donostia.
- Urte, P. d’.** *Dictionarium latino-cantabricum*, Londres, 1715. Ik. Urkizu, Patrizio.
- UZEI.** 1982. “Lanean ari eta ari, UZEIk badu kontrariorik ere. Carta abieta al Sr. Mitxelena”, *Egin*, 1982-01-02.
- UZEI.** 1986-1993. *Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa* (Corpus zerrendatua), Donostia.
- UZEI.** 1982. *Erljio Hiztegia*, Elkar, Donostia.
- UZEI.** 1981. *Filosofia Hiztegia* (2 lib.), Elkar, Donostia,
- UZEI.** 1979. *Hizkuntzalaritza Hiztegia*, Elkar, Donostia.
- UZEI.** 1979. *Matematika Hiztegia* (2 lib.), Elkar, Donostia.
- UZEI.** 1980. *Psikologia Hiztegia*, Elkar, Donostia
- Van Eys, W. J.** 1873. *Dictionnaire basque-français*, Londes-Paris.
- Villasante, L.** 1952. “Literatur-euskara laphurrarr klasikoaren gaiñ eratua”, *BAP*, VIII-1, 91-119 orr.; VIII-2, 259-298 orr.
- Villasante, L.** 1956. “Comunicación sobre la réplica del Sr. Altube al Sr. Michelena acerca de sintaxis vasca”, *Euskera*, I, 14-18 orr.
- Villasante, L.** 1968. Antziñako euskal hitzen formaz”, *Euskera*, XIII, 175-201orr.
- Villasante, L.** 1970. “Luis Mitxelena, *Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue*”, *FLV*, 7, urtarrila-apirila, 1971, 91-101 orr.
- Villasante, L.** 1970. *Hacia la lengua literaria común*, Frantziskotar argitaletxea, Oñati.
- Villasante, L.** 1973. *Axular-en Hiztegia (euskara-español-francés)*, JAKIN, Arantzazu-Onati, Pamiela, Donostia, 2007 (2. arg.).
- Villasante, L.** 1974. “Euskara idatziaren joskera. Euskal idazle zaharren gaitzestea XX. mendean”, *FLV*, 16, (urtarrila-apirila), 325-342 orr.
- Villasante, L.** 1980. *La H en la ortografía vasca*, Frantziskotar argitaletxea, Oñati.
- Villasante, L.** 1983. “Atari gisa” [Azkueren Hiztegiaren edizio berriari], Euskaltzaindia, 1984, 11-14 orr.
- Villasante, L.** 1988. *Euskararen auziaz*, Frantziskotar argitaletxea, Oñati.
- Zalbide, M.** 1986. “Hiztegegintza-batzordea”, *Euskera*, XXXI (2. aldia), 1986. 127-139 orr.
- Zalbide, M.** 1986. “Hiztegegintza-batzordea: 1986rako ekintza plana”, *Euskera*, XXXI (2. aldia), 527-533 orr.